


# SANTA TERESA



Aita Onaindia

# SANTA TERESA

## ELIZ-IRAKASLE

II zaneke IV Eunurtegarrenean  
(1582-1982)

AITA ONAINDIA,  
Karmeldar ortoza

Bear diran baimenakin

© Aita Onaindia - Larrea. 1981

Marrazkiak: M. Tere Agirregoikoa-Aristondo

Dep. Legal: BI-2219-81

Irarkola: IGARRI, S. C. L. - Artes Gráficas

Rafaela de Ybarra, 1, azpian

BILBAO-14

## SARRERA

*Teresa asko ditu eliz-egutegiak, gaur beiñik-bein. Baiña bi doguz ospe aundikoak: Avila'ko Teresa ama ta Lisieux'koa, biak gurenak. Lenengoari Santa Teresa deritxogu, ta bigarrenari geienik «Teresatxo». Emen Avila'ko Teresa Deunaz diardugu, datorren urtean (1982) lareun urte diralako Teresa ama Tormes ibai ondoko Alba'n il zala.*

*Ementxe datza aren gorpua. Eta ustel/du barik; iges ak, itxura danez, erio ta usteldura legetik; gaur be, lareun urte igorota, aren gorputz illotza osorik dago, usa-intsu ta eder. Erantzunik ez dabe jakitunak, itxurazkorik, orrelako jazokuna egoki adierazo al izateko. Or ez dau balio aize legorrak; lurra emokeran ondo ezo ta be-teak geratu ziran inguruak euriz ta karez, bizkor irotu Zedin berariaz.*

*Gorputzez ain sendo, mardula ete zan gure Teresa? Bai zeral Kikili-mokolo, ondoezik eta min-ontzi ibilli yakun ia bizitza guztian, oian etzan egoten baiña. Txiro jantzirik ikusten zan komentuan eta zalpurdian komentugintzan ebillelarik; goiz jagi ta berandu etzun'jan-urri ta atsedeen urriago. Idazten beti, egiana egiala; otoitzari emona etenbako orduetan. Alai beti ta langille; iñoiz bere ez alperkerian.*


*Sarri goratu izan dabe munduko jakintsuak. Leibnitz'ek berak autortu bear izan euskun Teresa'ri zenbat zor eutson. Buru argikoa zanez, Agustin Daunarekin eta Akino'ko Tomas santu jakintsuaz kidetu izan dabe, ez gitxitan.*

*Gaur ostera, egia esateko, Teresa ta Agustin Deuna ditugu kristiñau erriak maiteen ditun santuak. Zergaitik ete? Euren egunkariak idatzi ebezalako, ez ete? Agustín'ek bere Autorkizunak eta Santa Teresa'k bere Bizitza itxi euskuezan; arein barne-lanak, bakotxak bere neurri ta erara, biotza dardaraz jarri eben; olantxe daukaguz gaur-egunean be, lau, sutsu dardarti. Eta onek ezin ukatu, aundi egiten ditu pertsonak.*

*Lareun urteon buruan Teresa aundiaren bizitza la bur au —ezta ezer aundirik— biribildu nai izan dot. Egoki zan, izan be, gure izkuntza zelanbait erdikide izatea, aren omenez ospatuko diran jaietan.*

*Euskaldun jenteez artu-emon beroa izan eban Teresa'k. Euskaldunak, euron aldetik, erantzun izan dautsoe al giñoan, gizaldietan zear. Orra, gaur berton, zelako jentetza batu oi dan, bere jaietan atan be, gure komentuetan, Larrea'n, Markiña'n eta Begoña'n baitik bat.*

Larrea, 1981-10-15'an



Avila, urrundik. Ikuspegi txairoa, arresiz inguru egiña.  
XVI'garren gizaldian.



# I

## TERESA DEUNA GORPUTZ ETA ARIMA

Teresa Deuna, itzez eta idatziz, nun-naiko izkuntzetan izan da goratua. Au Jainkoak Berak bakarrik dakian arren, Andra Maria'z beste, emakumerik gorenengotzat jo izan dogu ez gitxitan, giza-itzezko lore artean usain-gozogarri. Goralpen orreik merezi ez dituanik ezin daikegu garbian ukatu. Bere aurrean, izan be, txiki ta aundi burua makur-azo bearrean aurkítzen gara.

Olako emakumea, jarrai-bide legez begien aurrean ipiñi oi yakuna, barru ta kanpo zelakoa dan jakin-naia berez-berezkoa da. Barrutik zelakoa dan jakitea ez yaku gaitz, bere liburuak, ugariak atan be, irakurri ezkeru. Eta azal aldetik onela marrazten dausku Jose Deunaren Maria karmeldar amak «Solasaldiak» deritxon liburuan,



«Santa au —diño— gorputzez aundi geiago zan txiki baiño; gazte-egunetan txit liraiña zalakoaren entzutea ba-eukan, eta orrela emoten eban gaiñera bere azken urteetaraiño. Aren arpegia etzan geientsuena, eta bai oi-ez lakoa ta samurra; ezin daiteke esan biribil ala luzanga zanik; inguru-birak bardintsuak, bekokia zabala ta ondo neurtua, eder-ederra; begigain eta betoskolak, gorrizka ta illunak, luze ta pizkat uztaituak; bizi, baltz biribillak, noski, ez aundiak, baiña bai ederto egokituak. Surra biribilla, ta eskumako negar-guriñak gorantz begira, bekaññetaraiño gitxituz doazala, betarte gozo nasaia egiñik; goi-puntea borobilla ta apur bat beerantz makurtua; sur-zuloak, txiki uztaituak, eta dana arpegitik urrindu gabea».

«Ez da errez —dirausku aurrera jarraituz— ortan daukan osotasuna osorik margozte: aoa, neurri onekoa; goiko ezpana, meia ta arteza, bekoa lodia ta zerbait jausia, kolore bíziz ta lerdén-jario. Alakoa zan aren arpegi ta betarte guztia, urteetan aurreratua izanik be, eta gaixoa ia beti, atsegingarria begientzat, eder aotik erion autua, keiñu ta eskuketa apaiñez ornidua, Lodia argal baiño geiago, eta soin-atal guztietan ondo egokitu ta erazkoa; esku politak, naiz-ta txikiak; arpegian, ezker aldetik, iru orban, garija pitin lez, zuzenean bata-bestetik, ao azpitik zear; au zan aundiena, eta bestea ao ta surraren tartean, urrago goitik beetik baiño».

Gitxi gorabera onelaxe dogu Teresa Deuna gorputz aldetik begiratu ezker. Eta arimaz, zelakoa ete zan? Aren egiñak eta idatziak doguz orren ezaugarri ta erakusbide ederrenak. Ainbat komentu jaso ebazan, Jainkoaren aintzarako; ainbat liburu ondu zituan, guztion

onerako. Zer adierazten dausku onek? Etzala edozelan-  
go emakumea, buruz argia ta ganoraz trebea baiño. Gi-  
zaki arrigarria nunbait.

Acímenez bizia zan, ederra eriona ezpaiñez. Irudi-  
men urdurikoa, egaz arrapatzen ebazan aurrez-aurre  
autuan eukazanen esan naiak; etzan alan be zuzenbi-  
dezko mugetatik aldendu oí zana. Alaia zan, eta alai-  
tasun au ez eroian biotzean bakarrik, artu-emona eukan  
guztiakaz banandu ta zatitzea be atsegin yakon; gozo ta  
samurra zanez, laster irabazi oi zituan biotzak, noiznai  
ta nainundik erion maiña ta gatzaren ederrez, edozein  
arima —jakintsuenak naiz ez-jakiñenak— Jainko-mai-  
tasun galdatan urturik.

Aula zan arren, gaixoti ta min-ontzi, aspertu barik  
lanari ekin eutson bere bizitzaldi guztian, itzez, otoitzez  
eta liburuz Jainkoaren erreñua zabaltzen. Asko be as-  
koren adimenak argi-azorik eta nun-naiko oiturak eder-  
turik, lan txalogarria osotu euskun Eliza barruan; etzan  
egundo eragozpenen eta oztopoen aurrean kikildu, ezta  
oillotu be; etzan atzera egitekoa. Andrazko zala gizo-  
nezko zirudian, indartsu ta biotz bipilleko.

Asmotsu zan, bere itzetatik eta egiñetatik atera dai-  
kegunez; barru-bizitzari dagokiozan auzi ta gauzarik ez-  
kutu ta mistíkuenak azaldu euskuzan: etzan ikasketa ta  
estudio sakonik egiña, baiña arlo orretan, ots, barne-  
bizitzako gaietan jakitunen artean jakitun agertu yakun,  
eta agertzen yaku; aspertu barik irakurri, ikasi ta egu-  
neroko experientziz, Jainko-jakintzan batez be eskola  
aundíkoak zíranakaz ar-emonean jarduník, goi-jakitu-  
riaren gaillurreraiño igon zan, eta, zer diñoan ez dakiela

diñoskunagaitik, iífok esan ez dituan legez esaten dauskuz jainkozko gauzak.

Garbi ariman lez gorputzean, garbia izan yakun lumaz bota ebazan lerro guztietan be. Guren, aratz adierazten ditu esku artean darabiltzan zerak; leun, samur ta ezti diño esan nai dauana, idazle jakintsu askok baiño bizi, argi ta leunago, esan be. Idazkera dotore, apain eta eskertsuan idazten dau, itz-alkartze ta joskera bikaiñez, irakurlearentzat ulerkor, alsegingarri.

Ela bioLza? Osolzen doguzan idaz-laneLan dardaraz geraLu oi dira batez be gure bioLz-zaLiak, arnasa ta zauskadak, ela Teresa Deunaren liburueLaLik errez aLera leiLeke aren biolza zabala ta aundia zala, bizkorra, bizi ta leuna, suar ta oldar aundikoa; beti, alan eta guzti be, errazoiaren menpeko. Maitasuna errez izan oi zan aren jaun eta jabe; gazLeLan beinLzaL au zan bere goiburu: «MañLatu ta maitatua izan». Irakur eizue berberak ondu eban Bizitzea, lenengo ataleLan, eta ez dozue ortaz dudaren izpirik izango. Maitasunak darabil biotza, ortarako da-ta, baiña maite-su garbirako. Teresa'rena etzan sekula be loitu, berez baít zan zindo, garbi, txukun. Eta, berak diñoskunez, «ez eban nai iñok Jauna bere erruz iraindu egianik».

Erregiña izateko jaio zan, diño idazle batek, eta erregiña izan zan; neskuts, birjiña izateko jaio zan, eta Kristok emaztetzat artu eban; jakitun izateko jaio zan, eta Elizak bere irakatsizko janariaz erakutsi daigula eskalzen dauLso; olerkari jaio zan, eder-zale, eLa Jainko mailasunezko olerkari-eme bikain izan yakun; make izaLeko, ela Jainkoak, makasunez, alderik alde igaro eulsan

biotza; len-emakume izateko jaio zan, eta munduko emakume idazleetatik bera dogu balio geenez ornidua.

Biotzez ez-ezik —esan dogu— adímenez be eder da Teresa Deuna. Arrigarria, izan be, aren adimen kementa. Egia dau janari adimenak. Ispillu dogu, egia dizdizten dana; ispillua argiago ta kristalean ber-sortzen dan irudia dizditsuago, dudarik bage. Ispillurik diztikorretarikoa zan Teresa, ulermen argitsuz: jainkozko egia nabarmendu zan berfan, lekaiame azkarraren adimena jainkozko eguzkitan ipiñirik.

Ez eban ak Teolójirik ikasi, mistika arazoan orraitino bera dogu maixuen maixu, Elizako Irakasle errime. Biotz-teoloji da mistikea, gure barrua garbitu, argitu ta Jainkoaz batzen dauana. Eder da egia, eder maitasuna, batez be Jainkoagandikoa bada. Egiak egia dakar, maitasunak ona sortzen: munduan aurkitu daiteke egia ontasun barik, baiña inoiz bere ez ontasuna egi barik, ona egiaren atzea bait da,


Egiak, beraz, frutu bezela ona dakar. Eta auxe izan, zalantzarik bage, Teresa Amaren mistika, barru-bizitza. Ez itza bakarrik, ez geldi egotea. Egille da Teresa'ren biotza, maitasunezko egille amorratua. «Ez, aitzak, Jau-nak egiñak gura dauz», díñotse bere monjatxoai. Jau-naren mesedez beterik egonda be, lanari ekin bear dau-tso arimeak.

Emakume dogu Teresa, biotzez aundi ta buruz argi. Zuurra emakume lez, oso zuurra Jaunagaz. Maitekorra guztiz; bizi zala, ez ilteak kendu oi eutsun bizia. Maite sutan ondatua bizi zan, ez gero giza-maitasun osiñean,

Jainkozko ar-emonezko bizitza leun gozoan baiño. Aren maite sastadak eta suzko oldarrak berak itxitako liburu-  
ruetako idatzietan agertzen yakuz iñun baiño obeto: gaur  
be, irakurriaz bakarrik, sua ezarten dabe idatziok. Be-  
rez zan samur leuna, eta Jainkoagazko artu-emonean as-  
koz samurrago biurtu yakon maitasun ori. Eta bizitz-  
aldia luze eritxiz, onela abesten dausku:

«Ai!, au biziaren luzea!  
Erbeste onen minkorra!  
Espetxe ta kate oneitan  
esturik bizi bearra!  
Noiz urten-zain nagola soilki  
damost oiñaze gogorra».

Arima maitez minduaren garraxi latza. Bai, eriotza  
eban opa Jainkoa ikusi ta oso-osorik euki guratan,



«Enkarnaziño» komentua, Teresa moja sartuzana.



## II

### TERESA, TXIKITAN

Avila, zaldunen uri ospetsua, arresi bikaiñez ondo inguratutakoa. Urte asko joanak izanagaitik, garbi ta guren daukagu gaur be. Ementxe, kondairaz asean dan uri onetan, sarkalderantza, Santo Domingo eleizari aurrez dagoan etxe mordo batean jaio zan, 1515'ko epr-illaren 28'an, umetxo zoragarri bat, gerora aintzatsua oso izango zan Teresa Deuna.

Umetxo cren gurasoek: Alonso Santxez Zepeda ta Beatriz Ahumada. Senar-emazte guren onein sukaldeak amabi seme-alaba ikusi ebazan. Alonso birritan ezkondua izan bait zan; lenengo emazteagandik iru seme-alaba euki zituan, bigarrenagandik, Beatriz Davila Ahumada, «gorputzez eder-ederra ta arimaz askoz geiago» zanagandik, bederatzi, Senar-emazte zoriontsuontzat Jainkoaren bedeinkapen ziran seme-alabak.



Pozez gaiñezka dabiltz etxeko guztiak, Teresa jaio danean. Andik laster be, apirillaren 4'an itxura danez, ba-da jai-iskanbilia Zepeda'tarren etxean eta Nuñez Vela'ren jauregi aurrean. Neska-mutiko txikien poztasuna! Ezkil-otsa San Juan eliz-torreen. Jaio-barri dan umetxoa bateatzera doaz. Frantzisko Nuñez eta Maria Aguila izango dira aita-amabitxi. Neskato jaio-barria daroa besoetan, zapi zuri-gorritz batuta. Kristau egiterakoan, ura umetxoaren buru gaiñera lenengoz ixuritzean, Teresa izena be —bere amama, Teresa de las Cuevas, lez izango da— lenengoz ezarriko yako.

Eliz-egutegian ez egoan aurretik Teresa eritxon santurik. Eta ipiñi eutsoenak jakin ezta be, izen au ez etorkion gaizki umetxoari: «gozo», «atsegingarri», «mirarigille» esan nai dau griegoz Teresa izenak. Eta ordurarte izen ori eroian santurik ez ba'zan be elizan, ez eutson, bera izango zan Santa aundi, bera izango zan mirarigille. Teresa bateoan eliz-alaba izaten asi zan, eta il aurretxoan onela arek ots: «Azkenez be eliz-alaba ilten naz».

Biturte aundikoak ziran Teresa'ren gurasoak. Ona ta eclerra dira, izan be, etxalde bateko doairik bikaiñenak. Alabatxoa bateo-urez txipristinduaz etzan areintzat dana amaitu: biak, Alonso ta Beatriz, egiaz saiatuko dira alabatxoa «kristauki azi ta ezten». Oraintxe dator lan zailla. Aita ikasbide onez aurrelari joian, eta amak ardura zolitan ziarduan seme-alabai errezatzen erakusten, Andra Maria, Jose Deuna ta beste Santu maite izaten erakutsi ta erakutsi. «Ona izateko —diño berak— la.gungarri yatan neure gurasoekan onerako joera besterik ez ikustea. On-zale amorratuak ziran biak. Nire aitak maite zitun txiroak, ez-eukiak, gaixorik egozanak,

eta baita morroiak be. Nire ama bardin birtutez zama-tua neban; gaixotasun asko ta aundiak izan zituan arren, beti agertu oi zan eroapen aundikoa... Gorputzez ederra zalarik be, era ta begirune osoa beti erakusten eban». Maratza zan Teresa'ren ama, samurra ta maitekorra, buruz argia, Ogeíta amairu urtekin il zan.

Teresak gurasoak lez maite zituan bere neba ta aiz-tak be. Oneik dirala-ta, au diñosku bere Bizitzan: «Iru aizta ta bederatzi neba gintzazan. Danak gurasoen ariko, Jainkoa maitatzen ekienak eta onoimen aundikoak, neu izan ezik. Neu nintzan, barriz, aita maiteen ninduna». Anaietatik geienak, orduko famili argietatik asko legez, Ameriketara igaro ziran, Peru'n eta inguruetan aberri-aren alde gogor burrukaturik.

Urteen txirrintola ez egoan oin-geldi. Teresa aziaz joían, lirain ta eder. Sei urtera yaku. Itz egiten dau polito! Irakurten be ikasi dau. Gabero, itz zoli, irakur-ten da etxean egutegiko Santuaren bizitza; aita da geie-nik irakurle, ama noizik bein eta iñoizkoren baten gaz-tetxoak be bai. *Flos Sanctorum* da sarrien irakurten da-na. Or orain be mai zabal baten inguruan: aita bere kontuak egiten, ama esku lanetan; Teresa ta Errodrigo, ostera, Santuen bizitzako irudiaí begira, buru-makur; lerro batzuk be irakurri dabez astiro astiro. Atsegin ya-kez bertan datozan jazoerak. Basamortuan bizi dira san-tu ta santa areik, Jainkoari emonda, urteetan eta pizti artean. Zoragarri yakez Kristo'gaitik bizia emoten daben neskato martiriak. Zerua errez irabazten dabela uste da-be; borraruak burua mozten dautse ta aingeru artean, koroiz eder, zerura.

Dizdizka daukaz Teresa'k begiak, biotza dardarka. Errodrigo'k bardin. Lilluratutik gaztetxo biak alkarri:

«Errodrigo, bizia dago betiko», eta Errodrigo'k: «Bai, Teresa, betiko, betiko, betiko»; Teresa'k. barriro: «Errodrigo, nekea dago beti-betiko», eta Errodrigo'k: «Bai, Teresa, beti-betiko». Urrengo goizean neba-arreba txikiak ez dagoz etxean. Euren billa dabiltz or-emen. Nun ete dira! Eguerdi aldera Frantzisko Zepeda datorkie, aitaren anaia, ate-joka. Beragaz dakaz Teresa ta Errodrigo. Arresiz bestalde, urrin samar idoro ditu, Adaja erreka gaiñeko zubia igarota. Mauri-errira joiazan, martiri izan nairik.

Egin ebena etzan izan askorik, baiña eurak mauritar artean burua moztu egioela opa eben. Teresari biú moztu eutsoela burua etxera ziranean, neba txikiak erru guztia berari egotzi eutson eta. Berak eukon euki be errua, berak iñoan batez be: «Nekea edo aintza beti-betiko». Lenengo saioak ez eutsen ondo urten; ez eben alan be etsimenik artu, ezta amor-egin be euren burubide leialan. Ba-ziran santuak basamortuan santutuak. Eta Teresa'k: «Ikusi nebanean Jainkoarren ilgo ginduzanen artera eltzea eziña zala, bakarti izatea erabagi genduan». Ortarako, baratzeko edozein zokotan ermitatxoak jaso ta antxe emon oi ebezan ordu luzeak, otoitza, barau antzekoak eta limosnak egiñik. Eremuetan lez, piztiak be lagun ebezan. Gaztetxoen amesak bai eder!

Argi edo ez ain argi, gaztetan ibilli oi jaku bizi guztirako deia ernemin. Berezko senak dakarskun gaitasuna. Or Teresa deuna umetatik bakar-bizibideari griñatua; eta lekaimetxeak jasoteari, ez gitxi. «Begiko neban —diño ak—, beste neskatoakaz olgetan niardunean, komentuak egitea, mojak bai giñean». Orixe zan lora guri aren aurtzaro ez utsala.

Sagarlandarak, orraitño, zaindu bearra dau landatu barritan; baita arima gaztetxoak be, gal ez dadin iñok igarri bage. Espaiña'n garai areitan adur-zale zan jentea, egunak eta lurrak zer ekarriko bizi ziran geien bat; irakurri be, zaldunen liburuak, aundikien egiteko arrigarriz beteak, irakurten ziran. Orduko jente zerbait ekienak lez, Teresa'ren amak be grña au eban, zaldun-liburuak irakurteari emona zan; aitari ez yakon atsegin, baiña umeak etxean ikasia axe artzen eta Teresa'k amari jaraitu eutson onetan, aitag jakiteke liburu areik irakurtera ixilka moldaturik.


Ontaz, ba-dira batzuk Errodrigo'k eta Teresa'k olako liburu bat, zaldunen ibilli ta ipuiñakaz apaindutakoa, bion artean osotu ebela diñoenak be. Dana dála, irakurketa oneik ez ekarren frutu onik. Leen bakar-zaleen bizitzak lillurutzen ba'zituen be, orain zaldun eta emakume aundikien maitasun arloitezko miesa artean nastuta ebiltzan gaixoak. Teresa'k leen, otoizka ta buru-ukapenez emon oi eban aldia, orain bere berezko edertasuna, urri etzana, ederragotzen ziarduan ardura aundiz.

Guk uste baiño kalte geiago ekarten dabe irakurgai'k, adimena dardaratu ta biotza zimeldu, aul-erazoz, Gaitz bage iruditu arren, ba-dabe bai pozoia barruan. Or Teresa'ren biotza, gazte ta doaiz betea; ez dau Jainkoa iraindu nai, baiña ez da Jeen beste artegatzen; atsegingarria da Teresa, ta laster irabazten ditu biotzak: berea zabal-zabal dauko maite-jokorako. Ba-ditu lengusu batzuk eder jakozanak, baita lengusiñak be, eta areik nai dauz jolaserako, alkar ízketarako. Aitag ba-daki; zelan-alangoak iruditzen yakoz alabatxoaren irakurtaldiak eta lengusuekin daukazan egotaldi luzeak; Teresa'k, alan be, ez ditu laga nai ez areik eta ez oneik.

Gai oni buruz naikoa idatzi eban gero Teresa'k; ots, lagun bada-ezpadakoak zelako kaltea ekarri daikueguen adierazoaz lerro jakingarriak itxi euskuzam Gaztetan, egun bakotxak zer barri dakarskun gaian, errez makur-azo leikegu biotza. Ori jazo yakon Alonso'ren larrosa-pipil lerdinari. Berak gero pekatuz loitu zala sarritan esan arren, etzan sekula pekatu astunean jausi, baiña arriskuan ibilli zan, orma gaiñez gain dabillenen antzera: ez eban negar gitxi egin gerora, arriskuan ibilte ori zala-ta,

Teresa'k, bere burua galzori ortan ikusi ebalako, bere aitari —edozein gurasori— ez eutson kontseju gitxi emon, bere Bizitza liburuan batez be. «Arriturik nago noizik bein —diño— lagun txar batek egin leikean kaltea gogoz artuaz; ezingo neban ez berau siñistu, ortik igaro ez ba'nintz. Neugan ikas beie gurasoak, onetan kontu aundia izan daien».

Bai, lagun onak ikasbide ona itsatsiko dausku; txarrak, ostera, bere oitura bada-ezpadakoak, txarrerako makurrago bai gara. Lengusu-lengusiña zituanengandik, biotzez maite ebazan arren, ez yakon oker txikia etorri: biotzak errez ler-egin eutson txarrera.



Avila'n agustindar mojen komentua. Amasei urtekin,  
ementxe bizi zan Teresa.



### III

#### TERESA, GAZTETAN

Amairu-amalau urteko da Teresa. Etxeko kimu mardo guria, su datorren arto kirten malatsaren gisakoa. Ontsn, jazokun triste bat gertatu da Alonso jaunaren etxean: ama, Beatriz Ahumada il da. 1528, azkenengo egunetan. Gotarrendura'tik eldu yake albistea, Avila'tik ogei bat kilometrora, ipar-sorkalderantz, dagoan auzunetik. Etxean ba-da —ez da arritzeko!— negarra, zotiña ta zizpurua. Biaramonean dakarre burdi baten amaren gorpua, Avila'n lurra emoteko. Beretarrai oraturik negar-uts dago Teresa. Utsune izugarria izten dautso amak biotzean, edozelan beteko ez dauana nunbait.

Zartateko orrek itxitako atsekabea arindutearren, etxetik alde egin dau Teresa'k; kale ixillak igaro ta uria-  
ren sarkaldeko arresietara egiñez doa; Adaja ondotik



urten eta San Lorentzo ermitara eldu da. Emen, Graziako Andra Mariaren aurrean auzpez daukagu; errukizko Amari utsitzen dautso bere arima naigabetua, negar eta intziriz antxe dago. Illun dakus ortzia, illun lurra; ama illik dana agertzen yako baltzezko miesaz jantzia, ames guztiak lur-jota, ez dau bizi nai. Uts-utsik, lerturik cíauko biotza; ez daki berau zegaz bete, ain bait da utsune sakona! Aitz aundi batek arrobian itxitakoa dirudi. Norbaiten laguntza bear dau, beso bat eusteko. Eta Andra Mariari eskatzen dautso bete dagiola Berak ama illak itxi dautson utsartea; biziteko naitaez bear dauan bsroaren ederrez kemendu daiala bere arima jausia.

Samintasun au adierazo nairik onela idazten dausku berak: «Gogoan dot, ene ama il zanean, zelan asi nintzan ulertzen zer galdu neban; bioztua, geure Amaren irudi baten aurrean auzpeztu nintzan, negar-malkoz beterik neure Ama izan zedilla eskatuaz. Uste dot, eskari lau-laua izan arren, baliotsua izan yatala; igarrian, izan be, Ama onengan aurkitu izan dot, Beragana jo dodan guztietan, ama baten laguntasun berezia».

Aziaz doa Teresa edertasunean eta jakiturian. Lora bat da pertxenta, lillurakorra guztiz. Ume-zurtasunaren margoak beste itxura bat daukala dirudi. Gu bai aldakor! Teresa'k ezin dau beragandik aldendu leendik be ainbat kalte ekarri eutson bere lengusiña, ezta urlia lengusuagazko artu-emon arriskutsua be. Bedar txarra, ondotik atera ezik, beingoan yatzu bizten. «Kalte guztia ontan egoan: ez nebazala autu, ordu, abagune ta aukerak errotik kentzen. Gure Jaunaren maitasunaren maitasunarren eskatzen dautset nik gorde daitezala olako

ereti ta jausbideetatik, ortan jarri ezkeru ba ez dago segurantzarik. Jaungoikoaganako bidean eragozpenak jarren dauskuezan guztiengandik aldendu bear da»,

Teresa'k, lora bigun, nok zaindu bear dau. Ortan dabil Alonso prestua; ortan baita beraren aizta nausi Maria be. Aitak ez dauz ondo ikusten lengusuagaz daukazan orrentesteko alkar izketak, eta gabea bein eta barriz agiraka egin oi dautso ortaz bere alaba samurrari: ez dautso jaramon aundirik egiten onek, Azkenez, aibat kontseju ta arpegi artzez erdi-asperturik, bere alabea lagun arte artatik urrinduteko une egoki baten zain dago.

Lgster jarri yakon aurrean opa aban abagunea. 1531'an, Maria Zepeda, alaba nausia ezkondu yakon Martin Guzman'ekin, Amasei urteko dogu Teresa, eta bakarrik lez geratzen zan berau; aitak komentu batera, orduko oitura zanez, eroatea erabagi eban, zaindu ta aziera ona emon egioen. Eta goiz baten, or Alonso ta Teresatxo kalean zear bakarrik, uri arresitua lagaz ta goitik beera bide zakar samarra egiñez. agustindar lekaimen komentu aurrean. Avila'ko familia onetako alaba asko azi ta ezten dira berton, jan, lo ta ikasi komentuan egiñik. Teresa be aurrerantzean ementxe bizi izango da urte bete ta erdian.

Lenengo egunetan etzan pozik egon. Baiña, apurka apurka, aaztu dau dana, baita bere lengusua be, eta bertokotu da. Pozik dago Teresa ta pozik dagoz mojak: Teresa bizitza guztian alegindu zan inguruan zituenai poztasuna ezarten. Leen gaiñezka eukan umore ona be atzera etorri yakola zirudian; alai ta pozik ebillen, eta izakera biotz-betegarri au sakona, barren-barrenekoa zan,

«Neure leen-adiñeko onera barriz biurtzen asi yatan arime, eta argi ikusi neban Jainkoak zelako mesedea egin oi dautson Berak onak diranen artean ipinten dauanari».

Orrela «onen artean bizi», aitaren etxean itxiriko gauza ta pertsonak ez eben orrenbeste kezkarazten. Leikaime ta gazte ikasleen arteko bizimodua eder yako. Guztiz ona deritxo Maria Brizeño, neskatillen maistra. Komentua ezeukia ta latza izan arren, Jainkoa maite eben arimaz beterik aurkitzen zan, egi-egiaz. Emakume on-on areik osorile irabazi eutsoen Teresa'ri biotza; moja ta ikasle lagunaren artean, beraz, munduan itxi ebazan baiño be maitasun garbi ta sakonagoak idoro zituan.

Beste zerbaitek be gogo berotu dautso. «Zer izango naz ni, gerorantza?» itaunduten dautso bere buruari. Moja izateko deirilc ete daukon pentsetan asi da. Barrura begiratzuz dabil, barne-zirlciñak aztertu nairilc. Umetan be ba-eban zerbait olako, baiña orain leikaime artean bizi danetik, txaplata lez deiez dabilkio zerbaiten otsa. Lagunei otoitzak eskatzen asi da Jainkoak argia emon daion, ots, zein bizi-bidetan «Berari mirabe jar-tea nai dauan» erakutsi daion. Alan be, autortza au egi-ten dauslcu bere Bizitzan: «Baiña oindiño ez neban nai mojan ízaterik; ez, Jainkoak ez eistala estadu ori emon».

Baiña ez egoan geldi; Jainkoaz ar-ernon bizia eulcan. Erabagi sendoak ez doguz artzen zio barik. Geldiro doa euriaren ezotasuna lurpera; bardintsu Teresa'ren biotzera be Jainkoaren maitasun beroa. Barriro asi zan otoitzean, umetan legez; gabaz, ogera ordulco batu-batu egiñik daukazu Jainkozko autu gozotan, pentsamentuok ausnartuz: zenbat jasana zan gugaitik, baratzeko ortuan,

esaterako odol-izerdía ixuriaz. «Neuretzat daukat —diñosku— nire arimeak asko irabazi ebala emendik; orduantxe asi nintzan otoítza eukiten, zer zan jakin bagoa». Geroago idatziko dauskunez, izan be, otoitza da birtute guztiak lortzeko oiñarria. Ta nori ez yako komeni ortan jardutea?

Adiskide miña da Kristo, geugaz daroaguna. Beronek dei ba'dagisku, entzungor egingo? Moja izatera bultz ba'daragio, zelan ukatuko ete? Ez litzateke zuzen, ez egoki. Olan, mundua agurtu ta komentu baten bizi izateko pentsatzen asi da, noizik beinka baiño ezpada be. Beste lekaimetxe baten, bear bada, agustindar onein bizi-moldeari latz samarra deritxo-ta.

Ots, zelan darabiltzan Jaunak, bere burubideetan noski, munduko gauzak eta biotzak. Teresa, agustindar komentuan urte bete ta erdi egiñik, bere aitaren etxera biurtu bearrean aurkitu zan, gaixotu zalako. Bere aizta Maria bizi zan Castellanos de la Cafiada eritxonera eroan eben osasun billa. Baifia Zepeda'tar gaztea ezta orain, leen andik urten zan lakoa: leen bere lengusua ebilkion durunduz biran; orain, ez, orain Kristok asetzen dautso barrua. Goitar deiaren auziari arduraz begiratzen dautso.

Ezkutuak bai Jaunaren bideak! Castellanos'en igaroko ditu Teresa'k illabete batzuk, bere aiztearen etxean. Erritxo ontara baiño leen, Hortigosa'tik igaro bear izan dau, bere osaba Pedro Santxez Zepeda bizi dan lekutik, eta emen geratu da egun batzutan, eta Jauna, ain zuzen be, ementxe dauko zain: Pedro Santxez'ek liburu batzuk ipinten ditu Teresa'ren eskuetan, eta onek aldia emonez, eurok irakurten ditu.

Oraintxe jausten da Teresa bete-betean. Itz edo ja-zoera batek ez dau gitxi esan nai gure bizitzan. «Emen —diño Teresa'k— egun gitxiz egon nintzan; baiña Jeinkoaren itzak, berbak, zein irakurriak zein entzunak, indar egin eusten biotzean; lagun onak bardin, asko egin eusten. Olan umetan ikasitako egia ulertuz ni-ñoian, au da, ezerez dirala gauza guztiak, mundua las-ter amaitzen dala, eta etorri leitekela eriotz ondoren infernua. Eta oindiño moja izateko erabagia artu barik nengcan arren, antz emon neutsan, eta ulertu, auxe zala bizimodurik on eta seguruen.

Umetako pentsamentuak, ba, sakaka eukazan oster a be biotzean, goiz-txinta leio-ertzean legez. Askotan oiuz asi oi zan: «Betiko, betiko, betiko...» Egia onek eragin-da adoretuko yako ernemin daukon goitar deia, moja-bokaziñoa. Izango ditu oraindik be bere zalantza ta du-dak, baiña onezkero ez dau atzera egingo.

Urteak joan urteak joan, bere nebetatik batzuk Amerika'rako itxas-ontziratuak ziran, espaiñar beste adur-zale askoren antzera. Egiazko zistu bizia zan sasoi artakoa: gazteak oro nai eben urez bestaldeko jirabira, Etsipen eta neke barria Teresa'rentzat: bere neba Errodrigo'ren agur egitea. Bere umezaroko lagunik ku-tunena, bere jolaskide ta otoitz-laguna, betiko bear ba-da, agurka. Gerra odola ebilkion zanetan. Bai, egun ba-tez, agur egin eutsen bere aitari ta bere anai-arrebai, 1535'garreneko udagoiena zan.

Ogei urte daukaz Teresa'k, eta lurrera jausiz doaz bere ames urdiñak. Bizi au bai dala ituna! Olantxe doaz beera bere maitasun-orriak: bere ama lenengo, obira-tua; bere aizta Maria gero, ezkontzean sortetxea itxi ebana; orain, Errodrigo, geiago ez etorteko doana. Iraun-eza osotoro lurtar bizia!



Barne Gaztelua. Orra doaz arima onak.



## IV

### TERESA, BAKAR-ZALE

Iru illabete gitxienez igaro ebazan Teresa'k bere aitaren ondoan, pentsamentu illunez goibel, etorkizunaren zapia ezin urratuta, ezaren artean larri oindiño. Etzan egoera samurra, Ogetabat udabarri joanak yakan, ordua eban beraz zirt edo zart egiteko. Bakar-zale bai'litzan, barrura begiratzen eban, gurari aurkakoen liskar lstz arteko eraso, joaldia ezin eztitu ta eskuraturik. Gazteago zaneko utsegite ta pekatuak lauso jarten eutsoen barrena, infernu ikaraz jarri be, Jainkoaren aurrean, baiña, apalesten eban bere burua. Eta kezka arte orretan artzen dau erabagi setatsu ta iraunkorra: moja izango da. Erabagia erabagi!

Zaartua eukon aita, gaixoti ta ondoezik sarri; uste ebanez, bere alaba «kutuna» izango yakon zartzaroan



euskai. Onek moja sartzeko asmoa iragarri eutsonean, naiz ta kristiñau ona izan, dartada bizia emon eutsan biotzak. Eta, bai ba!, ez eutsan baimenik emon: bera etzanean, alan be, aske ta libre geratzen zan gura ebana egiteko. Teresa gazteak, orraitño, ondo ezagutzen eban aitaren biotza, samur- bera nunbait, eta laster konturatu zan orduan ukatzen eutsona laster izango ebala. Deiez eukon Jainkoa; beronek otzanduko dau aitaren biotza; au oartu orduko, egingo dau berea, ziur dago bakartadean, eta andik ez dau atera naiko, indarrez gitxiago.

Eta goiz baten, ixil-ixillik, eguzkia jagi baiño leen, aitaren etxeari agur egiñaz, uriko arresiz bestaldean, Ajates ibartxoan datzan «Enkarnaziño» deritxon komentura doa. Besoak zabalik artzen dau moja talde eder batek. Komentu aundi ta ederra, antxiñako karmeldar lekaimen etxea. Teresa'k emen dauko moja adiskite bat, Juana Juarez, geroago karmeldar Ordenea barriz-tatzerakoan asko be asko lagundu eutsona,

Une mingotsa benetan! Bai alabearentzat eta bai aitarentzat. Alonso'k ez eban gitxi sufriduko Teresa'ren igesa jakitean, Jainkoaren naia egitera laster jarri ba' zan be. Teresa'k, barriz, berberak diñosku zelako samiña eroian barruan, etxetik alde egin eta komenturatu zanean. «Gogoratzen naz, bai oríxe! —díño—, eta egiazki, neure aitaren etxetik urten nintzanean; ez dot uste, il nadinean be, sentimentu geiago izango dodanik. Iduritzen yat azur bakoitza berez aldunduten yatala; aitaren eta senideen maitasuna kendu eikean Jainko-maitasunik ez egoan-eta, dana zan índar ikaragarria egiten eustana: Jaunak lagundu ez ba'leust, gogoetak eta asmo

sendoa ez litzakidazan naiko aurrera egiteko». Era askotara agertzen yaku Jauna, baita gertakizun onein bi-dez be.

Andik egun batzutara, 1536'gneko azillaren 2'an, artu eban karmeldar jantzia. An zan Alonso, bere aita be; ez gero asarre, eta bai artaratua, egiñera jarria, ain zoragarri ta pozik bere alaba ikusirik, pozaren pozez birloratua baiño. Egun bete-betea Teresa'rentzat, eta betetasun ezin ukatu orrek, egunik egun geituz joan yakona, eriotzaraiño iraun eutson. Karmeldar abitua jaz-tean ogetabat urte, zazpi illabete ta egun batzuk eukazan. Sasoi oba eziña, gorputz ta arima, Jainkoari bere burua eskiñi egion.

Teresa gazteak, karmeldar oiñutsak, bere ikas edo azi-urtea asten dsu; urte osoa karmeldar bizitza errotik ikasten erreko dausku. Apal eta deboziño aundiz dabil, zerbitzu guztietan arduratsu. On-onak iruditzen yakoz Ama nausia ta asibarrien arduradun ama; ikasbide ederra dauko, beraz, ingurumari. Ba-eukazan aldatz gora egíten yakozan gauzak be, baiña pozik aurkitzen zalako, dana begitantzen yakon erreza. Jaunak aitzen emon eutsan, gaiñera, zelako arretaz lagun egiten dautsen Bere zerbitzuan alegintzen diran arimai.

Izaki guztietaz arduratzen da Jauna, baiña era bera-rizkoan Bere zerbitzuan gozo ta samur dabilzanakaz. Ortarikoa genduan Teresa; orduxetik, esan geinke, me-sedez ornidu eban Jaunak, mirabe zintzo leialaren izatea oso egundoko ezti-izatearen kemenez aseturik. «Jainkoak —diño— leendik neukan Iegor-izatea samurtasun biurtu eustan». Ona, bada, Teresa, ziba ardatzean lez, karmeldar bizi-molde barruan. «Eder ta gogoko yatazan

—idazten dau— lekaiame bizitzako gauza guztiak»; urak belakia lez asetua, alde guztitik poza eriola ebillen otoi-tzetan, koruko ordu-jardunetan, aizta arteko lanetan, gazte ta guraritsu. Jaunagan dau uste osoa, Ari zerbitzen diardu jator.

Gaitz izaten yaku sarri, bizitzan, barne-deiak eskatzen dauskun toki berezian jartea. Ezkondu bat, elizgizon bat, dagokion lekuan egokitua ez bada, burdi kirrinkalari antzera, txintxilimur eta buruz-bera dabilki-gu beti. Teresa, baiña, Jainkoari osorik emona dago, ta orixe dau pozaldi atseginkorraren sorburu; argi ta garbi, Jaunaren besoetan jarri danetik, Ak darabil bere naitara. Jainkoa beti yaku biotz zabala.

Bakar-zalez gaiñ penitentzi zale da, Kristori antz emon dagion: eder yako Kristo bere maitearen baratze-ko otoitz izerditsua, eder gugaitik zigorrez astindua, gurutz-pean eta gurutz-gaiñean samur ikusi ta ausnar-zea. Gu pekatariokaitik dakus orren naigabetua. Leen naiko pekatu egiña zan Teresa, bere ustez, eta aurre-rantzean fiñ be fiñ jokatu bear, iñoiz be irain txikienik be Kristori egin bage. Bakar bizitzan penitentzi bizitza eroango eban, Kristok lagunduta.

Egia esan, ba-zituan oraindik, eta berari olan iruditzen yakon, Jainkoari eder ez yakozan griña ta joera bada-ezpadakoak; ba-zituan bai izate barruan ondo sus-traitutako zerak, bedar txarrak lez alderatu bearrak, Onela autortzen da: «Karmeldar bizitzako zer guztiai lotua nenbillan, baiña ez nengoan oindiño destaiña ta gitxi-eritxietara egiña; on eta edertzat euki nenguela, poz-garri yatan, eta izan be neure atsegiña billa oi neban zernaitan... Gitxi nekian oraindik koruko errezuari

buruz; ba-nekusan lekaimagai sarbarri batzuk, neure mojakideak niri erakutsi leikidenak. Baiña nik batzutan ez neutsen itaunik egiten. gitxi nekiala uler ez egien».

Eta joera makur guztiok aizatu bear zituan. Ez eukan beste biderik. Burrukak ekarren ekarri be deslai, ausia: mixeriz beterik ikusi eroiart bere burua, ziñak eta miñak ikusiaz. Gurari aundi ta biziz gañezka, baiña bere argaltasunean gitxi zala eritxon Jaunagaitik egiten ebana. Gaixorik egoan mojatxo bat eta arek lakoxe sufrimentuak nai zituan berak be. Aren eroapena! Eta Jainkoari eskatzen emon daiola berari be pazientzi eroapentsua, eta bial egiozala Berak gura zituan gaixotasunak: betikotasunerako ondasunez aberastu nai eban bere arimea. Eta urteak joan urteak etorri ez yako palta-ko, ikusiko dogunez, ez gaxik ez eroapenik.

Bizi dan monastegi edo lekaimetxea ez da zarra; gela ederra da Teresa bizi dana, argitsua ta urira begira. Aurrez aurre daukaz Avila'ko arresi apaiñak, elizto-reak, ezkiltegiak, zelai ta landa edatuak... Zar eta gazte, lekaime pilloa dau lagun otoitzerako, lanerako, koro-ruko errezu, kantu ta zeremonietarako. Noizik bein, orraitino, triste lez dabil, izate barruan daroan egoneziñaren zerbait nabari yako, moja-lagunak ezin dabe ulertu zergaitik dagoan batzuetan poz-jario ta beste batzuetan gogo-illun. Berak dirausku: «Bakar-zale ikusten ninduelako ta batzutan negarrez be bai neure pekatuakaitik, uste eben ez nengoala pozik, baita iñoizka esan be».


Noz edo nozkoren baten, Ordeneak agindutako penitentzi ta ildurai samurregi eritxirik, ortura joaten zan

asunetan, gabaz gelako bakar ixillean bere aragia ezi, zigortu ta ilduraz zaflatu nairik.

Giza-bizi gupillari dakionez, poz eta atsekabe artean, eldu yakon Teresa'ri profesia egiteko garaia. Burrn-kari lotua oindiño, alde batetik ames gozotan dago, beti betikoz Jainkoarena izango da-ta; bestetik, naigabeak estutzen dautso biotza, oindiñokarren bear bezela gertatu barik dagoela uste bait dau.

Ezbai orrein artean, baiña, Jainkoak berak indartzen dau eta Teresa'k bere profesia, oso-osoan Jainkoari emotea ospatzen dau aundikíro, 1537'gnekoko azillaren 3'an. Poz-eguzkiak dizdiz dagi «Enkarnaziño» komentuan; baita Alonso jaunaren etxean be. Orain ez dautso alabeari karmeldar izateko baimenik ukatzen; alai daukagu Alonso, poz bitsetan. Olaxe jatsi da etxetik komentura ordu-ordurako, etxeko danakaz batera. Or, ba, Teresa, moja guztiakaz, burdin-sare barruan eta aita eleizan, profesako zeremoni guztiak zoragarritasunez ikusi ta jarraitzen. Ez dau ezetariko miñik. Ai, bere amak be gertari au ikusi al ba'leu! Zerutik, bai urrean...

Begira Teresa onezkero Jainkoari eskiñia oso, bere orri-orrian egokitua; ez dau ortilc zirkiñik egingo, ez lilluraz ez aize zakarrez. Jainkoarena da. Berau maitatzea, Beronen mirabe leial izatea, or aurrerantzean dago-kion arazo bakar-bakarra. Jaunak berak aukeratua da, bere-bere izan dadin. Santu izateko dago bakartadean. Jaunak ziur asko era askotara aztertuko dau oraindik, beti be Bere zerbitzura bultz-eragiñaz. Jainkoak ez bait dau iñoiz erakarten Bere adiskidetasunera, nasai bizi nai dauan jenterik.



Teresa gaixorik, Avila'tik urtenda, Hortigosa'k zear,  
Bezetas'era doa.



## V

### TERESA, GAIXORIK

Ez da gitxitan entzuna be: «Eske ta eske nabilkio Jaunari, eta alan be ez dot ezer jaresten». Ezta egia; Jau-nak ariñago-geroago beti entzun oi dauskuz guk egin-dako erreguak; baita bear doguna eskuratu be egiten dausku. Teresa'k, baratzeko otoitza ausnartzean batez be, naigabe ta oiñazeak eskatzen eutsozan, eta Kristok eskatuaz batera arimako ta gorputzeko neke biziak bial-du eutsozan. Ez dago santurik gurutze bage.

Sendo ta asmotsu dirau Teresa'k arturiko erabagian; baiña odolean eta gora aunditan ordaindu bearco, ziu-r baiña ziurrago. Leendik eukan arimea kezka gorritan etá oraingoan gorputza be, gogoá baizen bipilla ez ya-kona, borroak artzen asia eban. «Aldi gaiztozko ondoe-zak geitzen así yatazan —diñosku—; biotzean be, beste



gaitz askogaz batera, min aundia sumatzen neban, olan-  
txe igaroz neure lenengo urtea osasun onik ezaz».

Pozik egoan moja zalako, baiña arriskuan aurkitzen  
zan poztasun ori. Ixillik euki nai gatzaren zera, baiña  
aitaren belarrietara be eldu zan orren albistea. Goiz  
baten Teresa ez da joan koruko otoitzetara. Komentuko  
atean dago Alonso jauna, errai estu ta kezka bizitan;  
medikuak eta enparauak barrura dira; ara ta ona dabiltz  
mojak, bebarru ta igaro-bideak zear. Txarto be txarto  
dago Teresa. Ikusi dabe osagilleak eta euren eritxiz bio-  
tzeko miña da moja gaztearen gatxa; komentuan artu  
ezin leikezan osabideak bear dauz. An inguruan ospetsu  
dan emakume sasi-mediku, aztruak, bear bada...

Alonso'k, aítegatua, etxera daroa bere alaba kutuna,  
eta andik dalako osagillearengana beingoan; egingo di-  
tun gastu ta zerak ez dira ezer izango Teresa bizirik ate-  
ra ba'dagi. Negua da, aro otza. Bidean doa talde bat, be-  
rokiz ondo orniduta, zaldi gaiñetan, Adaja igaro ta sar-  
kalderantz. Sei dira bidez guztira: Teresa ta beronen  
aita, Juana Juarez moja ta iru morroi. Kuranderearen  
billa doaz. Dakigunez bada-ezpadako osagille oneik gor-  
putzeko edozer sendatzen dabe; olan diño beintzat.  
Aurrera doaz tapa-taka bidaztiak, zirkin-zarkin medar  
makurretan zear.

Gaixoari atsedean pizkat emotearren, aldika erreko  
dabe bide arloa. Hortigosa'raiño izango da lenengo txan-  
da; ementxe bizi bait da osaba Pedro, leen esan gen-  
duanez. Gizaseme leun biotz onekoa, lobeagaz leen be  
txeratsu agertu zana; oraingoan ez da maitekor ezago  
izango, ez izan ezpairik. Bere etxean eukiko dau Teresa,

nai beste egunetan; eta, orrezaz gaiñera, liburu eder bat ipiñiko dautso eskuetan: «Irugarren Abezea», Osuna' tar Frantzisko prantziskotarrak idatzitako, Teresa'ri gogoko yakon otoitz-era erakutsiko eutsona.

Au dala-ta, onela idazten dausku Teresa'k bere biritzan: «Aruzkoan, neure osabak liburu bat emon eustan, «Irugarren Abezea» deritxona, batuzko otoitza ederto erakusten dauskuna berau; nik ain zuzen be, sarbarri nintzala liburu batzuk irakurri nebazan arren, ez nekian zelan jardun otoitzean, ezta neure barruan zelan biribildu be; liburu onek, asko poztu ninduan eta neure indar guztiaz beronek ziraustanari jarraitzeko asmo sendoa artu neban. Jaunak be orduko malko-doea emona eustan, eta atsegin yatan bera irakurtea: une batzutan, bakarrik egoten asi nintzan, eta sarri autortu oi nintzan. Bai, bide au artu neban, axe liburua maixu nebalarik»,

Castellanos'en ostera be beste egotaldi bat. Emen bizi dira, dakigunez, bere aizta Maria Zepeda ta beronen senar Martín Guzman. Ondo datorkio bai, dudarik bage, geldiune au bidean, Bezedas'eraíño jo aurretik. Eta egin be, egin be, eurak uste baiño luzeagoa egin beariko, Teresa'ri ondo yatorkon osabidea, ba, ezin-go dau asi bedarren garaira arte, ots, udabarrira arte; beraz, bederatzi bat illabete antxe emon beariko ditu, Ezta asarre origaitik, txeratsu ta kutunki artua da-ta; ez dau kezkarik izango, biotz maitatien artean, guztien leusengaz mizke aziko da maiteak egiñik. Gogozko liburuak irakurriz eta otoitzari ekiñez, oiñaze ta samin-elorri erdian nunbait, santu bidez azkar-azkar aurrera-tuko yaku. Soin-miñak akulu yakoz jainkozko arloari guna aterateko.

Neguko otzak eta euriak, onezkero, aizatuak dira. Zelai ta sasietan agertu dira lenengo kimu, pinport eta lora pitxiak. Zernaik artu nai dau udabarriko eguzki leunaren txera gozoa. Oraintxe dau Bezedas'ko aztruak, bere bedar egosi, naste bakanakaz, lanari ekiteko aro eroso; oraintxe burutu oi dauz bere gangail-osaketa, txaplata ta eratsiak. Senide ongilleai agur esanik, arako bidean jarri dira ostera be Alonso ta Teresa, Juana Jaurez eta morroiak, atso arrigarriaren billa. Or aurrez aurre Gredos mendia, gora ta eder; ortxe dago Bezedas muiñotxo baten, Salamanka ta Avila tartean. Erri txikia baiña polita, euntegi, triminola ta errotaz bete, landa ta igali-zugatz eta aresti galantez edertua.

Or, bizi-bizi billatu ta idoro daben aztrua, zernai osatu oi dauana. Esan dautsienez, eta orixe uste dau Alonso'k, emakume osalari axe bakar bakarrik Teresa osatu leikena. Asi dira, ba, lanean. Zertan baiña? Batetik bat, eguneroko muxilarro edo zirin-bederrak, estegarbigarri; gero ondoren, eta ugari, edari garratz nazkagarriak, ezkutu ta misterioz beteak. Labur esateko: osakiak neurri barik, bedar suster ta abarrez, ondo birrinduta, aztruak bere gelatxo zikin illunean eratuak.

Gaixoa ez dago obeto. Ez dautsa sukarrak alde egiten, gero ta min zakarragoa sumatzen dau biotzean, ez dauka jateko gogorik, aztruak emoniko edariak ez yatorkoz ondo, auleriak joa daukagu mojatxo errukarria, Iru illabete daroaz osabide ortan eta ez dago onera. Gero ta ondatuago egiñik dago Teresa: ez da osatzen biotzeko miñetik, birikietan be kalte egiten dautsoe artzen dabezan botikak. Aztruak alabea sendatuko eutso-lakoan etorri zan aitak ez daki zeri oratu; emakume

ospetsuagan uste, entzipen, itxaropidea osoan galdurik, etxera biurtzea erabagiten dau: alaba kutuna il dadilla beintzat, iltekotan, bere etxean,

Erdi-illik, diñosku berak, dator Avila'ra. Garagarilla da. An lotzen da Bezedas, inguruko solo, mendi ta zugatzez dotore. Itxaropentsu joan ziranak buru-makur itzultzen yakuz etxera: illun goibela iruditzen yake onuzkoan, aruzkoan ariña ta aldatz bagea begitandu yaken bide-arloa. Olaxe munduko gauzak!

Austuta eldu da Teresa bere aitaren etxera; illa zirudian, beiñik-bein, 1539'genko agustuaren 15'an. Ain zuzen be «Enkarnaziño»-ko komentuko obitegian illobi bat daukie zabalik; mojak atondu dabez illetak ospatzeko bear diran zer guztiak be. Ilgo dala, orixen ustekoak dira danak. Lau egun daroaz ilda lez bere aitarenean; biotz dardara latzak astindu dau ta ez dator bere senera. Ispillu bat ipiñi dautsoe ezpanetan eta ez dau aren arnasak lausotzen. Ildakotzat daukie osalariak. Bertatik egingo dabez illetak, il-miesakaz jantzi dabelako, ta begiak argizaiz itxi.


Aitak alan be ez dau etsi nai. Gaixoaren aurrean belaunbiko, bein ta barriz diño: «Alaba au ez dago lur emoteko». Egunak joan arren, berean dirau ta gogaituko dalakoan ez dautsoe jaramonik egiten. Laugarren egunerako, baiña, bizi izaten asi zan Teresa. Ber-beronek dirausku: «Biribil-biribil egiña, zirkiñik be egin eziñik nengoan; besoai, eskuai, oiñai eragiñik bere ez; eskumako eskuko atzamar bat bakar-bakarrik erabilteko gauza nintzala, uste dot». Zerbait da. Teresa, beraz, bizirik daukagu oraindiñokarren.

Eta oindiño be erdi-illik egon arren, bere komentura biurtu nai dau, muker be muker; naiz-ta" gaixorik

aurkitu, antxe «Endarnaziño» komentuan osatuko da. Ziur dago. Ara daroe, ba; izara barruan daroe, lau egaletatik elduta. An, illik egoana, pozik artzen dabe. Eguna eta illak txirristaka doaz eta mojak gero ta arri-tuago aurkitzen dirala esan bear: arantzarteko miñen erdian be berak, Teresa'k, pozazten ditu inguruan ditunak. Otoitzari dakiola emon daroaz ordu luzeak, eta gogo-gogoz eta biotz-biotzez maite dauan Jaunak lagunduta, ibilli errimez doa santutasun bidean gora.

Iru urte egin zituan Teresa'k komentu barruko gaitogegian. Egia esan, osatuaz joian, astiro baiña. Barne-bizitzak kemendu oi dau gorputz auldua eta miñak arintzen doakioz: Kristoren antzeko dala begitandurik, dana yako errezago; Jainkoaren eskuetan itxia dago, larrosa-buru bat íegez ekaitz artean. Arek daki ondoen guri zer komeni yakun. Jasan orduan, Kristoz gaiñ, Job eroapentsua dakar gogora; Lege Zarreko eredu aren antzera, Jaunagana zuzentzen ditu bere begiak erruki eske. Eta otoitzean murgilduko da, samur eta leialki; auxe izango da, zorionean eta zoritxarrean, bere otoitz-biderik bikaiñena: alkar izketa gozoa, barrukoa, Jainkoarekiko autu leun beroa. Zer dogu otoitza, ain zuzen be? Maite gaitula dakigunarekin maitasunez jardutea. Ederto!

Samin artean ez dago gaizki. Baiña, osasuntsu, ez leuke geiago egingo Jaunaren eta arimen elde? Osasuna nai dau. Baiña ez lureko osagilleengandikoa, ta zerrura doa, angoak lurekoak baiño obeak dira-ta. Onela diño: «San Josef aintzatsua artu neban zaindari, aren zainpean jarri nintzan uste oso-osoa; santu indartsu onek egin eban ni jagi tta ibilli nediñekoa.



Avila. San Jose komeñfuko ermitatxo bat.



## VI

### JAINKOARENA OSO-OSORIK

Teresa, izan eban gaixotik guztiz sendatu etzalarik, bere bizitza guztian izango zan naiko elbarritua; benetakoa osasunik ezaren mende tirri-tarra ibilliko zan egunik egun eta urterik urte: zugatz-ondosko batek, landatu barri dala, maillatunerik egiña bada, lurtean dirauan arteiño erakutsiko dau mazpil orren zauria. Bardin gure Teresa'k be, gaztetan izandako gaixoaldiaren aztarrena nainoz agertuko dausku. Baiña berak osasuna opa dau, lanari ekiteko.

Zer lan, baiña? Zer burutu daike mojatxo batek bere lau orma artetik? Buru-arin askotxok uste dauan baiño zertxobait geiago, ziurki. Olakoaren lana, ixilla ta guzti be, gizarte-zirkuetan barrentzen da leunik. Ez esan egundo: «Gizon naiz emakume, zer dagi bakar-zuloan?» Zer dagien? Gizartearen zorionari sua ezarri, bai beintzat; goi-iruntz bigunetan sendi, erri, agintari ta menpekoen biotzak ase; edozeiñek egin gaiztekerien kitugarri izan. Ez al da ezer? Orixe dagi mojatxoak bakar-tadean.



Teresa'k otoitz-jardunez gaiñera, mundutarra be otoitz-era irakatsi nau eutsen: ikas eiela, bai, otoitzaren ezta miaztu ta ao-gozatzen. Argia zan bera ekiana besteai erakutsi al izateko, eta bizkorra, gatz-ozpindua itz-egitean. Zail zan aregazko autua etetea, bizi, maitekor eta leuna beti genduan eta.

Egoki jokatz gero, apostolutzarako bide bat da. Teresa'k ba-dau ortarako astia ta lekua. Garai artan eun eta ogetamarretik gora genduzan komentu artan bizi ziran moja ta bestalako emakumak. Etzan izan gaur baizen zeatza ta latza bakarti arein bizibidea: Teresa orixegaitik asi zan geroago Karmeldar Ordenea barriztatzen. Mintza toki zabal dotorea euken bertan, eta araxe jo oi eben mojak eta enparauak asti-unetan sendarteko, adiskide, lagun eta ezagunak alkar izketa gozoz alkar poztu-azotera. Teresa, be, bere zeregin eta otoitz-aldiak itxi barik, araxe zuzentzen zan sarriro. Etziran suster bakoak aren asmoak: otoitzaren edertasunak irakatsi, ortan alegintzen yakun.

Ama nausiak eta autor-entzuleak emonda ba-eukan baimena ortarako. Alan eta guzti be Teresa'k barruan daroa kezka gogaikarri baten ezten zirikatzailea. Besteai irakasten diardual-rik be, berak ez dautso otoitzari len beste gozotasun artzen; egunean ordutxo bat edo egiteko xedez dabil, baiña eztau kemenik ordutxo orixe ondo beteteko be: edozergaitik izten dau. Azkar dabilkio irudimena, berak «etxeko zoro» deritxona. Bere barneratu ta Jainkoaz mintzatu nairik, liburu bat artu ba'dagi, leen lez, eskuetatik jausten yako beingoan. Au barriz latz izan otoizlari batentzat; barru ta kanpo, nas-tua dabil, artega ta egon-eziñik. Itz gordiñetan dirausku berak zer jazoLen yakon. «Nik neuk ez neukan Jain-

koaz gozotasunik —diño—; ezta munduak be ez eustan pozik ekarten; aurkako biok —barru-bizitza ta zentzunen atsegin puskila-muskilak—, bateratu ta adiskide erazo nai nituan eta».

Teresa otoizlaríak, azkenik be, ganora bako era orretan Jainkoaz jardutea lotsagarri iruditzen yakola-ta, otoitz-arazoa bertan-beera iztea erabagiten dau. Dana egaberan itxi; errezena, bai orixe! Baiña, oindiño be, mintza-lekura jatsi ta otoitzaren inportantzi ta frutuak otsegingo ditu lau aizetara. Aren itzak, ez dituzu leen baizen sarkorrek, leen baizen biotzetik urtenak; zerbait tek uts egiten dautso berbetan. Ez dauke berotasunik, ez dabe leengo adieraz-indarrrik. Barritsu dirudi, berba-merke. Tankera ortan igaro eban urte osoa.

Leen sarri-samar entzule izan oi eban bere aita izango da ain zuzen, Teresa ostera be otoitz bidera ekarriko dauana. Il-zori aurkitzen da Alonso, eta Teresa joan 5'ako arik eta ondoen jagon daian. Jainkoak naita, Aita Barron domingotarra dago berton; Teresa'k oni azaltzen dautso bere barrua, ta onek diñotsa duin-eza dala uste izanda be, otoitzik ez izteko, ondo baiño ez eutso-la egingo ta. Ikasbide bikaiña, nunbait; Teresa'k aurre-rantzean, estuasun eta zoritxar guztiak gorabera ez dau bazter itxiko otoitzak dakarskun Jainkoagazko maite-bizia.

Beste aldetik Teresa'k, aita il yako-ta, zartako ederra artu dau; aita, bere aita il yako... Umezurtz dago. Otoitzean bakar-bakarrik idoroko dau utsune ori orniduteko bidea. Irudimena eskutzeko be aurkitu dau bide naiko alozokoa: Kristoren bizitzan datozen jazokunak gogoz ausnartzeari ekingo dautso. Ez da gauza ulermen-eraz gai sakonak buuan iraultzeko; baiña bakotxak

ditu bere igespide, maiña. ta azpi-jokuak nai dana lortu al izateko. Teresa, Kristori lotua, Kristoren ondo-ondoan bizi izango da, orain bere barruan irudituko dau, gero berba egingo dautso aurrez aurre ba'leuko lez, gozo ta maitati. Pentsamentua, irudimen zoroak eraginda, erbitxakur antzera usmoa galdurik ba'lebilkio, asierako liburua eskuratu, zerbait irakurri ta Jainkoaz autu gozoan sartuko da ostera be. «Askotan —diño berak— liburua edegi, ez neban geiago bear. Beste batzuetan apur bat irakurri oi neban, iñoizka asko be bai, Jaunak zelako doaia egistan».

Teresa gaztetatik zer askoren jabe egin zan oar-ikasiz ta esperientziz. Otoitzaldian ez eban gura ezeren oztopo ta sakabanatzerik. Urrin, ba, irudimenaren dantzaldiak; begoz adimena ta biotza Kristori lotuak, Beronek esaniko zerbaiti itsatsiak. Kristok erabillitako itzak darabiltz geien bat, naiz baratzeko otoitza gogoratzean, naiz Jakob'en potzu ondoan aurkitu eban samaritar emakumearekin autua ausnartzean. Ibilli nai dan bideari jarraitu al izateko, ibiltzen asi aurretik, eredu edo bide-erakusle bat nai izatea, ezta arrigarri. Teresa'k ba-zituan begiz jota bere ereduak: Andra Maria Nazaret'en, otoizlari bikain; Pedro apostolua, Kristo ukatuz damutua; Paul deuna, kristauen kontra su ta ke ebillela zalditik eratsia; Mari Madalen, peka.taria, bere pareko, baiña gero Kristoren oiñetan maitasunezko izketa ez-tian. Guzti onein artean ikusi nai eban Teresa'k bere burua; euron antzeko izan gura.

Jainkoagandik urrago ta egin pekatuak baltzago dardartu oi yakuz begi aurrean. Teresa'k Jesus dakar aurrera eta bere bizia dakus batera, ona ez-tana noski; eta babesa eskatzen dautso Berari, obetuz joan daiten. «La-

guntza eskatu neutson Jaunari; baiña uts nengian antza, ez bait neban Aregan konfiantza osoa jarten, neugazkoa oso-osorik galduaz. Osabide billa alegintzen nintzan; ez neban, orraitino, ulertzen ondo dana dala zer gitxi geugan dogun ustea, guztiz uxaturik, Jainkoagan ipiñi ezik». Bizi nai eban Teresa'k, baiña ez eukan nok bizia emonik; emon al eutsonak egiaz ez bait eutson laguntzen, ainbat bider Aregana jo arren, gero bertanbera izten ebalako.


Bein baten, ia konturatu barik, Kristo zaurituaren irudi aurrean aurkitzen da; larri ta estu, bere onetik urtena: Kristo geure pekatuakaitik ipiñi eben orrela. Negarrari emon eutsan, Aren oiñetan auspez: andik etzan jagiko, eskatzen eutsona emoten ez ba'eutson. Gauzak geroztik zeatzago egiten asi zan. Orobat San Agustiñ'en «Autorkizunak» irakurri ta aren Jaunagana biurtzea gogotan artu ebanean, Kristok ari esandako berbak berari otsegiñak zirala begitandu yakon. Jazokun bi onein ostean otoiz-zaleago agertzen zan, eta bere arima osasunari kalte egioen gauzak ziñez iguingarri yakozan. Ez zituan oindiño be osorik laga bere biotz-zalekeriak, baiña argi ekusan Jauna lagun etorkiola areitatik gero ta geiago urrindu ta alderazten.

Egiazko santutasunari emoteko diran arimak bai ta ez ibilli oi dira luzaroan. Are gefago Teresa. Jainkoarena izan nai eban, ez gero erdizka, bete-betea baizen. Kristo geure obenen sortapean zauri-zauri eginda ikusi ebanetik, Kristo zauritua bera lagun osotasun bete-beteriko bizitza eroan nairik, ez eutson ezertxori be parkatzen: otoitz, buru-ukapen, penitentzi, negar, intziri, dana zan Kristogaitik. Sarri autortzen zan, eta elizgizon eta lekaide santu ta jakitunakaz ar-emon barrukoia eu-

kan; zentzun eta konorte galtzeak, Jainkoak emonak, sarri eukazan; baita barne-ikuskari oiezak be. Kristok bein esan eutson: «Aurrerantzean ez dot nai zuk gizonak artu-emonik euki daizun, Aingeruakaz baiño».

Garai onetan Teresa'k berrogei ta bat urte eukazan. Osorik Kristorena dala bizi yaku. Dan bezelaxe; gorputz eta arima emona: gorputzez naiko makal dabil, arima aldetik ostera otoitzari ta buru-ukapenari, apaltasun aunditan, zabal-zabal atxikia. «Argituen» sasoi da, ta bere xorraldi, birlora ta ostantzekoetan kontuz joan bearko. Egia esan, autor-entzule onak daukaz, bide artezez zuzendu daien: A. Zetina, Pradanos, San Pedro Alkantara, ta abar.

Iñoren esanez jokutzen errimea izan zan noznai, ikuskarietan atan be. Doe ta mesede ugaritan edertu oi eban Jaunak. Bein, menpetasun orren sari legez, aurretik be ez gitxitan ízan eban, biotz zulatze grazia egin eutson. Aingeru bat zan, ez txiki ez aundi, oso ederra, kerubin artekoa, itxuraz. Urrezko gezi luzea eukan eskuetan, puntan bere ustez su pizkat eroiana. Biotzean sartu eutson erraietaraiño, eta ateratzean, eurok erraiok zatika eroiatsazala iruditzen yakon. Ortik intziri ain aundiak!



Toiedo. Teresa, barrizatzaille, Gaztela'ko urietan zear.



## VII

### BARRIZTATZAILLE

Gizasemearen ekiñari Jainkoak berea jarten. Teresa'gaz be olantxe ebillen. Bere emazte txit maitea izango zan arimea Berak nai aiñan eta opa ebanez gertu, ezi ta moldatzen ziarduan, egintza ezkutuz. Eurrez emoten eutsozan doai, mesede, grazi ta ikuskariak etziran alperrikakoak, zerbait aundi izango zanerako egiñak baiño,

Kristok ba-ditu bere emaztekiak, bakar-zale bizi diran arima autak. Kristok berak moldatu nai izan eban Teresa, emazteki askoren taiu ta eredu izan zedin. Ortarako jasan, sufridu eragin eutson ia ogei urtetan, edozein gogok lez garbitu bearrean egoan-eta, kezka, gai-xoaldi, larri-estura, dudamuda ta ezpiritu aldeko ez-paiak ugari artuazoz. Teresa'k berak bai diñoskuzala



argi ta garbi Kristok berarekin erabilli zituan azala egite ta amarruak. Jaunak, jakiña, ez eban aregan utsik txikerrenik be ikusi gura, eta bai alderantziz santutatsunik gorenengo maillarantza jo nairik; iñoiz be ez lurtar izakiai lotua; ortarako, alan be, pekatuzkoak etziran maitasun eta adiskide batzuk iztea, olgeta, autu ta astiarte batzui agur egitea.

Teresa'k, bada, Kristoren naiera ortaz konturaturik, eskintza edo promesa eder bat egin eban, gorabera guztietan beti Jaunari gogokoen yakona, onena eritxona egitea. Arrezkeroan, izakiakaz eukazan lotura guztiak eten oi ebazan. Teresa Zepeda etzan izango aurrerantzean, eta bai Jesus'en Teresa. Andik laster Kristok betak erakutsi eutson bere eskumako eskua, untzez zulatuta, esanik: «Ikus untze au, neure emaztetzaren ezau-garri... Nire dedua onezkero zeurea da, eta zurea nire». Poz-bitsetan igeri geratu yakun Teresa: Jaunagaitik edozer egiteko gertu.

Zugatzak bere frutua ekarri oi dau, baita Teresa'ren ezpirituzko barne-bizitzak be. Bere bizitz-maillan adiñik umotuenean aurkitzen zan, «Enkarnaziño» komentuan ezta txarto bizi, baiña bizimodu latz estuagoa opa leuke; zarata geiegi, kanpokoakaz artu-emon lar dago an; antxifia bateko karmeldarrak ixiltasun bete-betean bizi zirala-ta, Jainkozko barne-bizimodu sakon jorian, axe eban ames berak be. Bizitza bikainagoa eritxon, zeatzagoa, Jainkozkoagoa, lekaime bizikerazko eredu gurenagoa. Kristori ederrago ez ete yakon izango, berak be —eurak be— karmeldar Ordeneak aspaldi eukan bizimoldea —bakar-bizitza, ilduratsu, otoitz etenbako ta abar—, barriz asten ba'eban? Taldetxo batek beintzat, saio lez, ez ete egingo?

Orra or Teresa, erratsalde baten, bere gela zaba-lean lagun-aldra bategaz: batzuk mojak dira, beste batzuk ez. Orduko jazoerak ziran autugai: lutertarrak Frantzia'n eta inguruetan egiezan triskantzak, kalte izugarriak Kristoren fedearen kontra. Eta Teresa'k, azkenaldian ízan ebazan ikuskari ostean batez be, alegintxoia egin nai eban, Kristok Ebanjelioan itxi euskuzan kontsejuak alik eta ondoen beteten. Guztien beroz, bizkortuz joian autua. Ekin eta ekin, argi ikusten eben guztiak, Teresa'k eta Giomar Ulloa andreak bereziki, zeredozer egin bearra eukiela; Elizea orren estu ta eura nasai ta eroso ez egoan ondo. Orrelaxe, erdi txantxetan, monastegi barri bat eregi bear zalakora eldu ziran; komentu barri bat antxiñako karmeldarren araudia (erregela) bere batetasun osoan bizi al izateko. Jainkoaren ardurape jarriko eben gauzea.

Olan esku biakaz jantzia, laster zabaldu zan Avila ta bazterretan, mojak erabillen asmoa, konorte-galtze ta ikuskari apartekoz aberats zan Teresa'ren entzutea, Auxe dabil ibilli be, ez dago zetan esanik, jo ta ke moja karmeldar ortozentzat monastegi barri bat eregi gu-raz. Bala-bala albiste au etxe, sakristi, kale, atari ta azoketan. Ak barre dagi, onek ixeka. Teresa ezaguna da umetatik Avila osoan; makiña bat bider ikusi izan dabe kaleetan barrena, apainapain jantzita, baita izketan be, eta eztau egundo erakutsi barriztaile taiurik. Agertu gurea, antza danez. Mirarigille izan naia, alezgaiñekoa. Kontuz! Baiña or dira beste batzuk Teresa ondo ezagutzen dabenak, eta orreik diñoenez Teresa'k ba-dau zerbait jainkozkoa; ez da beraz karmeldar Ordenea barriztatu nai izatea penitentzi geiegiz burua arindu yakon mojatxo baten zorakeria,

Goiz batez arritu samar daukazu jentea erriko plazan. Moja bat eta itxuraz jantzitako andra bat doaz euren aurretik zear. Teresa ama ta Giomar Ulloa dira, komentu barri bat jaso nai dabenak, biok. Anbles íbarrera jatsi ta Tomas Deunaren Ikastetxera jo dabe. Aita Pedro Ibañez'en billa doaz; au an inguruko gizonik jakitunena da, euren asmoa agertu nai dautsoe berari. Onek ez diñotse ezetzik, asmo ederra bait da Jainkoaren aintzarako ta arimen salbamenerako; auzi astuna dirudi, alan be, ta ez dautse azken itzik emoten: zortzi egun artu nai leukez bere eritxia adierazo aurretik.

Zortzi egun joanak dirala-ta, or doaz oster a be irasle biak, arizari gauzak atonduteko itxaropenez. Otoitzari ekin dautsoe bitartean. Baiezkoan daukie domingotar jakintsua, ez dautse iñok galazoko, asmo bikaiña da-ta. Atzerakoan, urgazle ona bizi dan Ikastetxea itxi ta urirantz egitean, alai ta pozik artzen dabe eskale biak aldapan gora; argiz bete yake leen illun ekusen zeru alde. Itxaro-argi yake, baí, teologu ospetsu aren komentu barriaren aldezko eritxia.

Une onetatik asten da Teresa ama lanean, erabagi zoliz lanean. Arpegia emongo dautse or-emen jagiko yakoan arerioen erasoai: Jaunari deika ta tiriki tauki-tauki mailluaren ota, esan oi danez. Jainkoa dau tarteko ta buruan darabilen asmoa egi biurtuko da, al dan lasterren. Bertako Gotzaiñagaz mintzatzen da, baita Pedro Alkantara ta karmeldarren Nagusiagaz be. Baiña bada oindiño euron artean ezpairik naiko; gaur baietz ba' diño, biar ezetz; lenengo autor-entzulea dauko Teresa'k ezmezean, Aita Probintziala doakio gero atzera, gotzaiñak azkenez, komentua zelako kondiziñoetan jaso nai dan jakiñik —pobretasun osoan gura dabe irasle-

ak—, zalanizan jarri da. Autor-entzuleak batez be olako gauzarik geiago burura ekarri be ez egiteko diñotsa, eta Teresa «Enkarnaziño» komentura baztertzen da ixil-ixillik.

Onako kezka dagoala, Aita Probintzialak Toledo'ra doala agintzen dautso ango andra aundiki bat, arestian alargun geratu dana, Luisa de la Cerda, atsekabe aundi orretan zerbait poztu daian. Lenengotan, esku arieen ekarrena zala-La, musLurtu da pizkat; baiña Teresa'k ba-daki ondo be Nagusiaren esana Jainkoarena dala, ta ara doa lenbait-len.

Atsekabez zamatua aurkitzen zan ari laguntzea, ez yakon iruditzen gauza ezereza.

Komentu bat jasotean, ardura barik, nekez egongo dira gauzak oztopo bage. Deabrua olakoetan eten barik ibilten ei da maLasaren baL eioLen; gizasemeak besLe aldeLik ez dira makurLzen, errez beinLzaL, iñoren eritxira, bekaizkeriak susLrai biurriak baLL daukaz barren-barre^ sarLuLa giza-izatean. Auzi au baiña, Teresa Toledo'ra aldalu arren, aurrera doa; or dagoz Giomar Ulloa La AÍLa Ibañez, arazoari gogoz oraLu La aurrera eroan nairik dabikzanak. Eurok egingo dabe debeku laLz-pean urrin bialdua izan danaren ordezkoa, eurok eskaLuko dabe Erroma'ra orLarako bear daben baimen Idazkia; Teresa'k, beraz, sei-zazpi illabeLe Toledo'n eginda gero, andik daLorrenerako aldean izango dau AiLa SanLuaren baimena.

Toledo'n dago Teresa. Zelako zerak! Lekaimetxe «txiro» bat eregi naiez dabil, eta, Toledo'n, andra andiki alargun baten etxean bizi da eroso. Andiki onek ba-zituan bere kezka eta kasketaldíak. Maltzur samar



## VIII

### SAN JOSE LEKAIMETXEA

Lenengoz sartu zan komentuan, «Enkarnaziño» deritxonean, dago Teresa, Avila'n arresiz bestekaldetik. Laster, alan be, ez da an aurkituko. San Jose deritxon komentu oraintsu jasotakoa gertu dago-ta. Argi dabilkigu emen Jainkoaren esku altsua. Teresa Toledo'tik etortzeaz bat eldu da Erroma'tik komentu barria légez eregiteko bear zan Aita Santuaren baimena. An bertan aurkitzen dira, baita, gaiñerako baimenak emon bear dabezanak: Gotzaifia, Karmeldarren Aita Probintziala, Pedro Alkantara, ta abar.

Alan bearrezko onetan be, ikusi nai dauarentzat, eguerdiko argia baizan ditzikor egoan goi-laguntzaren arnasa, Beren-bererik be etzan obeto atonduko. Pedro Alkantara Aita, idazle batek diñoskunez, oindiño be muker samar aurkitzen zan, Golzaiñari lekaimetxe bari ori komeni zala buruan sar-azteko; an aurkitzen zan Aita Probintziala be, Teresa'ren arazoaren aurka iñor

ezer esaten ausartu ba'zedin, alako esames gaiztoak eze-reztu egizan. Teresa'k berak jagongo dau bere burua, baita buruan darabiltzan beste gauza interesgarriak be; agiri agirian eukan Jainkoa bere alde, eta Jainkoak, ez daukagu zetan esanik, guk uste baiño askotaz obeto eroan eta burutu oi ditu guk Bere dedu ta aintzarako eskuratu ta aurrera eroan opa doguzan arazoak.

Doi-doi amaitua da komentua. Eta mojak komentu barri ortarako? Jainkoak orniduko. Mojetatik be, gauzeari asiera emon al izateko, lau bat gazte ba-daukaz, apalak eta Jainko-zaleak. Teresa'k onetan be ba-daki zerbait: norbait ezerezago agertu ta etsaiak eraso, jazaraldi gitxiago ekarri oi dautsoz; oneik zati batean, Teresa amak «Enkarnaziño» itxi arte, bakarrik bizi bearko dabe, arek eta onek emoniko neke-alamenak sufridurik, Beste batzuk be begiakaz jorik daukaz «Enkarnaziño» komentuan bertan eta uriko beste famili aundikieta-koak, eta guztion artean amar-amabiko sendi adoretsua osotuko dau egiaz bai egiaz.

Etxe barria ezta lujo aundikoa; oraintxe diardue azken-zeaztasunak emotan. Santuz be ez dagoz gaizki: emen Karmen'go Amaren irudi apaiña; or beste aldean, toki nabarian gero, San Jose be, itxura ederrean. Kanpai txiki batek ez dau utsik egingo, ondoren etorriko diran beste lekaimetxe barri guztietan lez; orren durundu ozenak iragarriko dau komentu barri bat eregia dala; deirako ezkilli izango da. Oraingoan ez ei zan kanpai be, kanpaitxo baiño, ta berau erdi aldera «zulo naiko aundia» eukana. Txirotasuna ez da berbaz baka-riik erakutsi bear, baita gauzaz be.

Agustua da, San Bartolome eguna, 1562'ko 24'garena. Avila'n zerbait jazoten. Uriaren sorkaldeko jen-

tea, arresiz barru ta kanpo, nasai lo dagienak kanpai txiki baten ots errimeak itxartu ditu uste bagarík; barri onen bat iragarritz diardu ezkilak goiz-goiztik. Eta joale pitiñaren otsak bultzatuta, ara doaz itsumustuan belarri luze ta nun ze barri zale diranak ugari. Kanpaitxoa kantari ari dan lekura elduz, or etxeko apal bat, arrízko orma txikiduna, leio medar burdiñedunakaz, bebarru ixil kutsuzkoz eta zuraje baltzezko sapai estuakaz. Elizatxo bat agiri da etxeari dautsola; atzerago ortu bat, ormaz esitua, igali-zugatzez apain. Sarrerako ate ondoan dago kannaiia, dingilizka ta biraka. Eten bako otsean. Zer eta dau iragarten? Teresa amak jasotako komentu barriaren edesi jaiia. Pozarren aurkitzen da Teresa, eta zetan esanik bere ez bere lau gazteak, neskatx adoretuak,

Egun zoragarria! Asierako mezea Daza maixuak emoten dau. Bertan aurkitzen da Julian Avila, çero komentu barriko kapellau izango dana. baita Gontzalo Aranda ta Frantzisko Saltzedo be, biak Teresa amaren babesleak, eta eurakaz batera «Enkarnaziño» komentuko moia bi, Juana Ahumada andrea ta beronen senar Juan Obalíe. Ebanielio aldetik, burdinsare ostean, lau neska gazte belauniko, Teresa amaren alboan; karmeldar soiñeko arrea jazteko zaín dagoz, eta eurok izango dira munduaren aurrean abitu gisa ori lenengo eroanso dabenak. Zuriz iantzirik daukaguz orain, esku biak bular gaiñean, begiak lurrera, argi-diztira gozoz alaiturik arpegiak...

Mezea amaituaz batera, abitua jaztea. Teresa'k jarten dautsez banan-banan marraga latza, besana, kapa zuria ta asibarrien zapia; guzti au, barriz, Daza maixuak koruko burdin-sarera begira, liturgi-otoitzak otsegiten



dabezalarik. Teresa'k biotz ikara samur, lau gazteak ortozik eta kapa zuriz apainduta ikusirik! Ezin dau ezkuta barruko alaitasuna! Or, izan be asia karmeldar Ordena barriztua. Ezkil txikia ots bizkorrean barriro be. Iragar bai mundu guztiari Teresa'k asibarra dauan eginkizun zoragarriaren poza! Une onetatik Avila'k, eta mundu osoak, bizitza barri bat asten dau; San Jose deritxon komentutik, gero ta geiago, bizi-bafada arnasgarrri lez, or-emenka edatuko dan jainkozko bizitza.

Gauza barriak berez dakar zarata, arrigarri yakulako nunbait; garai onetan be izan zan goraberarik, eta istillurik. Aundiki ta zaldunak, agintari ta erri zeiak, elizgizon eta enparauak nastu ziran, ez gitxi, bakotxari egokion auzia bai'litzan lekaimetxe ba.rrif.ren zoria: betikoa, batzuk alde, beste batzuk kontra. Aspaldi dala ez da Avila'n edu ortako jazoerarik ezagutu. Oneik —sarri gertatu oi dana— zergaitik jakin ezta be, iraultzailiekaz dabiltz autsak ateraten; beste batzuk, asieratik aurka egonak, eziña uste ebena aurrera joiala ikusirik, zarrapasta eragille ikusten ziran lenengoen arteko.

Goiz batean —idatzi da— moja ortozak euren lanari diarduela, kolpe gogorrek entzuten dira asi-barria dan komentuko atean. Zer nai ete dabe ausart orreik? Itxi daiela komentua diñotse garrasika. Korrejidora be-  
ra da, Karbajal, beingoan urteten ez ba'dira, atea austuko dautsela diñotsena: Udal- Batzarrak erabagi ei dau komentua ezereztea. Barrukoen erantzuna: Teresa amak esanda bakar-bakarrik urtengo dirala. Batzarrera doa Korrejidora, sumindua; ebatzi barriak; batzuk diñonez, Udal-batzarrak bakarrik erabagiteko auzi astunegia dala-ta, urian zeozer balio dabenak, zerbait dakienak esku artu bear dabe arazo ortan. Beraz, batzar nagusi

baterako deia izan dabe uriko gizon jakitun eta pres-  
tuak, elizgizon kargudunak eta lekaide-buruak, uriko  
lagun-arteak eta bazkunak...

Domekaz, arratsaldeko iruretan jentetza aundia batu  
da Udaletxean; or dira Korrejidora ta ziñegotziak, es-  
kribau eta txinelak; or katedraleko buru ta kanonigu-  
ak, or Gotzaiñaren ordezkaria; or Domingo Bafiez  
—arrasatetarra— teologu ona, or Aita Martin Agilera.  
eta abar, eta abar... Danak, aundiki ta jakintsu, danak  
doaz plaza zabaletik zear deia izan daben batzarrera,  
Erri zeiak ba-daki zetan doazan, eta batzarrak bere era-  
bagia artu arte ementxe plazan jarraituko dau.

Udaletxeak ez eban ikusten begi onez komentu ba-  
rria; «Enkarnaziño» komentukoak be naiko ots eta  
axanpa erabilli eban auzi ortaz, Ez eben beste komen-  
turik urian gura; Teresa'ri berari be bere komentura  
biur zedilla agindu eutsoen, eta olantxe egin eban: an-  
dik zuzentzen eban naiko nasai, bere lau moja gazteen  
zoria. Ba-zituan ortarako laguntzailleak. Iñoizka arte-  
gatzen da, jakiña, Aiuntamentuak jarri eutson auziaz  
batez be. Bildur baten Jainkoak onela itz egin eutson:  
«Ez al dakizu altsua nazana; zeren bildur zara?»

Bítartean, zer ete darabille barruan? Auziari dara-  
goioe agintari ta jakintsuak. Erabagitekoa auxe da, ko-  
rrejidorak batzarkideai iragarri dausienez: «Teresa  
amak sei egun aurretik jaso dauan karmeldar mojen ko-  
mentua bota ala aurera jarraitzen itxi». Zer egingo ete?  
Gozzaiñaren ordezkariak Aita Santuaren Idazkia, fun-  
daziño barri ori ontzat emoten dauana, irakurten dau  
Ienen. Ondoren datoz eritxiak eta eztabaidak. Kontra  
dagoz geienak; naiz-ta Aita Santuaren baietza euki, ko-

mentu orren aurkalari agertzen dira apaizak, prailleak, teologu, jakitun eta zaldunak; kaltegarri dala uste dabe komentu barri au lendik dagozan lekaidetxeentzat. Ortik, ba, desegin bear da.

Beste batzuk ez dira ez aldekoak ez kontrakoak. Josulagunak ixillik dagoz. Batzuk eta besteak ixillera diranean, Aita Domingo Bañez jagiten da; domingotar teologu gazteagana doaz guztien begiak. Astun ots dagi onen esanak; buruz ondo jantziaren itzak dira, zentzunez, zuertasun aundiz jalgiak. Ondo ausnartu bear da auzia; ez gero ariñegi. Ezin leike bertatik egindako lan eder bat suntsitu. Aita Santuaren Idazki bat dago, eta Gotzaiñaren baiezkua, lekaimetxe barriaren alde dagozanak. Jainkoaren aintzarako da, eta Teresa amak badau zentzuna ta sua Jainkozko gauzetan. Itxi daigun gauzea Gotzaiñaren eskuetan, eliz-auzia dan ezkeru, Udaletxeari baiño geiago ari dagokio gai ori ebaztea ta.

Jarri da Aita Bañez. Batzarkideak, buru-makur, ez-baian dagoz entzunak ausnartzen. Ona da Teresa amaren lana. Gotzaiñak egin bei ondoen deritxona.



MedinaTco karmeldar ortozen komentua, otoiztegi.



## IX

### LEKAIME BARRIEN BIZI-MODUA

San Jose deritxon komentua jaso zala-ta, ainbat ibilli yakuzan muturrez mutur. Ekaitz ondoren, alan be, berealdia etorri oi da. Orrelaxe ízan zan Teresa'ren eztabaidan be, 1562'gneko azken aldirako ermo tinkotua aurkitzen zan bizimodu barria eroian karmeldarren lenengo komentua. Azalgaitz, ots, adierazo eziña zirudian izan eban zaparrada ain izugarria zala-ta, gauzak ain ego-ki ta zuzen eratzea. Baiña Jauna zan tartean ebillena. Teresa, dakigunez, bere komentu zarrean egoan, esaneko izanik, baiña aldatu eitela esan eutson Aita Probin-tzialak San Jose Komentura, ona etorri guraz ebiltzan moja batzukaz. «Eziña zirudian, ain arin», diño Tere-sa'k berak.

Eziña mendeko egiñik, Teresa ama oraingoz San Jose Komentuan aurkitzen da bere alabakaz. Ezin uka daikegu, baiña, bereak ikusi bear izan ditula an gorde

orduko; extreña-jai egunean bertan agindu eutsoen andik urrindu zedilla bere komentura, au da, «Enkarnaziño»-ra; olantxe egin eban, txit esaneko. Barne ondo erroturik daukagun gauza bat aurrera atera nai dogunean, alan be, ez da bera errez bertanbera ízten, Eguzkia be bekoz beko ipiñi yakon laiño matasa zuzitu ta izpi egiten alegindu oi da. Teresa'k ez dautso amor-egiten bere asmoari, etsaiak oska zolian jardun arren. Bere komentutik egiten dau al dabentxoa, aurrean erabilliak ziran moja gazte oiñutsai arnasa ezarriaz. Udaletxeak jarri eutson auzia, illabeteak ígarota be, Errege-jauregi-raiño eroan eban, bere eskubideak goikoen eta beekoen aurka aldezturik eta olan karmeldar Ordena barriztua aurrera eroanik.

Goiz argitsu baten, bere nagusiaren baimenaz, or dator Teresa berak jasotako komentura. Bidez datorrela, zerbait okerturik, San Bizente eliz nagusian ortoztu da; begiak ñirñir, poz-jauzika biotza, San Jose komenturantz doa bizkor. Ots batean dauka^u ateko kanpaitxoa, iñoíz baiño errimeago esan bearko, an jarri ebaren eskua ezaguna ba'leu lez; atea edegitean, Iau mojatxo asibarriak, alai ta irripartsu. besarkatzen Teresa ama; besarkada ori egin-egíñean be ezta une batekoa izango, eta bai iraunkor eta bizítzazkoa; ez dira geiago ama-alabak bereiziko, ez dabe geiago latz-ikara gordiñik jasango. Leen zati baten beintzat umezurtz ziranak, amaren beroak indar-azten ditu orain. Etxeko bazterrak oro, gela, bebarru, sukalde ta lantegi, askoz be alaiago dirudie. Joana da ekaitza, ta bete-betean dizdiz dagi eguzki pozkorrak.

Garai atan ames bezela izan ete zan aurrerantzean? Ona Teresa'k berak zer diñoan, urte areik gogora eka-

rriaz: 'Neure bizitzako urterik atsedean aundikoenak izan yatazan aretxek». Ba-eban betarik eta denporarik karmeldar Oiñutsen bizimodua berak gogo lez eratu ta atondu al izateko; orain au, gero bestea; au ipiñi, bestea aldatu, beti zer barri-billa. Orrelaxe, apurka apurka, moJdatuz joian karmeldar moja ortozen izakera, bizi-egitamu ta jasa. Bizi-modu berezia, bai, «Enkarnaziño»-ko moja kezkatu batzuk gura eben erakoa, Kristok itxi euskuzan kontsejuak beteaz egiña, ziur-ziur. Alkar maitasunezkoa, txirotasunezkoa egi-egiaz, baiña poztasunez gantzutua. Gauza aundirik euki ezta be, ez yake zer aundirik palta. «Jaunak bialtzen euskun —diño Teresa'k— bear genduan guztia, eta eskatzeke bialdu be; eta zerbait palta yakunean, oso gitxitan, orduan zan aundiago gure pozkariora». Txit esanekoak ziran danak; alkarri erakutsi oi eutsoen menpekotasun bikaiñean bizi izaten.

Xede bat berak erabiltzan: etziran an alkartu atsedean gozoan egon eitezan. Lanari eragon bear, eta atsegin aundiz. Zer lani, baiña? Elizaren eta gizonen aldekoari, arean. Elizeak, arerio asko zituan ingurumari; beronen alde jokatu bear zan. Gizonak bardin, arriskutan ebiltzan eta Kristok erakutsiari jarraituz bata-besteagaitik otoitzari ekitea, gauza aundia zan ezpai bage. Orixe bait da bakartadean bizi diranen arloa baitik bat: arimak zeruratu otoitz eta penitentziaren bitartez. «Orretarakoxe batu ginduzan Jaunak emen —diñotse Teresa'k bere alabai—; erretan dago mundua, barriro epaitu nai dabe Kristo, eta Eliza lurrera bota». Lanera, ba, zoli.

Ortarakoxe mundua erre ez dedin, mundua obetu dedin, mundutarrak alkar maitasunean bizi daitezcan,



bostetan jagiten dira goizero San Jose komentuko mo-  
jatxoak, etxe barrua soiñu atseginkorrez bizkortzen  
dauan txiliñak deituta. Goiz-goizetik korura doaz mo-  
jak, elizara emoten dauan burdin-sare ondoan belau-  
niko jarririk. Dei dagitse Espiritu Santuari, laguntza  
eske; moja batek ondoren otoitz-gaia dirakur danen-  
tzat eta gogarketa sakonean murgiltzen dira pizkaka piz-  
kaka: bakotxak egia bat irauli daroa ixillean, Kristok  
egindako edo esandako zerbait. Kristo dabe irakasle ta  
otoitz gai, ta autu ez-tian diardue bakotxak bere erara,  
luzaroan; igarri barik doakioe ordua. Gogozko otoitza  
da, eta autortu dogu, mundutarren premiñak, Elizaren  
bear-izanak dakarrez gogora, apaizen alde, familien alde,  
errien alde eskatzen dabe aspertu barik... Ortarako da  
San Jose komentua, ortarako karmeldar ortozen Orde-  
nea; elburu orri begira bizi bear dabe alkarte ortako  
guztiak.

Gogozko otoitzari dagokiona amaitutakoan, orduen  
liturjia dator, zati bat beintzat, Dabid erregearen sal-  
mu, eresi ta abar, aingeruen pareko esanaz. Mezea on-  
doren, Jaunartzea, gosaria... Gelak, aretoak eta lan-  
tckiak egunero pizkat garbitu ta apaindu ostean, bako-  
txaren arazoari dagokion lana. Orrelaxe, konturatu or-  
duko, ba-doa mojatxoen eguna. Janlekuan Teresa'k  
dauka erdiko maia, gurutze bat atzean eta gar-azur  
bat aurrean ditula; janaldi urria da, pobretasunari  
clagokionez, igande ta jaietan izan ezik. Txandaka  
dagie sukaldeko lana; Teresa amak be, beste edo-  
zeiñek lez, esku artzen dau janaria onduten. Iñoiz iku-  
si dabe bere alabak birloratua, zentzunak galduta; be-  
rak eskertsu diñotse: «Lapiko artean, ene alabak, Jain-

koa dabil». Zazpi illabetez gorako barau ta aragi-iztez, txiro ta pobre bizi izanagaitik, ondo betargi, alaitu ta pozjario aurkitzen yakuz.

Bazkalondoan, eresi ta otoitz, jantokitik doaz solaslekura, eguraldi ona danean, ur samar daukien ortu-txora, eta euria naiz otz samar litzaketenean, egon-gela eroso batera. Atsedean aldia da. Unekada oni be Teresa'k beste edozein eginkizuni lakoxe garrantzia ezarten dau-tso. Gorputzak, giza-bizitzan, bere asazkaldia bear. Uz-taia ezin daiteke, esan oi danez, beti tinkorik euki, ausi egingo litzateke-ta. Ziñez atsegingarria autu-alditxo au, nun-nai, baiña San Jose komentuan batez be! Moja-txoak, beian jarrita, batzuk josten diardue, beste batzuk goruetan be bai, lan bitartean Ama iraslearen izketa gozo bizia entzunaz. Igandetan lanaren orde, aleluiak eta Teresa'k berak ondutako bertso-estrofa sutsuak abestu daroez; Gabonetan eta urte barruko beste jai batzuetan, txirula, danboliña, triska ta zaldabaia joten dabez, dantza artazi ederrak be Jesus Umearen seaska aurrean eiorik,

Gogo batez etenik, orduaren arira, solasaldi pozik emona, euren zeregin, penitentzi ta otoitzetara biurtzen dira mojatxoak. Teresa'k solasaldi bitartean ezarri dau-tsen pozak ez ditu izten oneik euron egun tarteko ekin-tza ta otoitz-jardunetan. Teresa'k ez dau nai santutasun illun goibelik bere etxe barruetan; ez dau betosko latz-zorrotzik ikusi gura bere inguruan: izurri itsaskorra li-tzateke ori, iguingarria. Orixegaitik dana doa lau ta alai kutsutan batzaldia; koruko jardunak, esku-lanak, peni-tentzi ta soinildurak, dana legetasun betez eginda.



## X

### KOMENTU BARRIAK MOJA TA PRAILLEEN ARTEAN

Urte beteak igaro zitun Teresa'k bere mojatxoakaz Avila'ko San Jose komentuan, «atseden aunditan», diñosku berak; begi argia egin oi eutson gero be lenengo karmeldar ortoz lekaimetxe maitagarriari. Erle langille iduri, nasai ta bizkor aurkitzen zan bertan; baiña bost bat urtera baiño etzan eldu atsedernaldi pozkor ori. 1567'aren asikeran, Aita Rubeo, karmeldar Ordenako Nagusia Abila'n agertu zan, Erroma'tik etorria. Teresa' gaz egon nai dau, ta beronegaz mintzatzen da. Pozaren pozez ikusten dau onek egin dauana. Auxe zan izan be karmeldar Alkarteak bearrezko eban era-barritzea, eta itzetik ortzera «buruan uleak aiña komentu egin eizala» agintzen dautso.

Teresa ezta duda ta ezmezean egotekoa. Or doa erriz erri, «andra urduri ta iper-loka» lekaimetxe barriak jasoten. Ainbat eregi dauskuz bizi dala ta eriotz ondoren be izar ditzikor lez agiri yakuz mundu guztian aren usategi liraiñak, otoitz-etxe errotsuak. Teresa'k jaso-ala komentu baktokxaren edestia osotu euskun eta, jakiña, berak ondoen, iñok baiño zeatz eta egitien margozten ditu lekaimetxe orrein goraberak, pozkorrak eta atsekabezkoak, bere lumaz idatziriko «Lekaimetxeak» deritxon liburu jakingarrian.

Era askotarako uzta dator aitatu dogun liburu ontan. Txaloka artuak izan ziran leku batzuetan, Malagon'en lez; gau ixillean sartu bear izan eben beste batzuetan, Medina'n lez; emen, ba, kitanu lapurretan oituak lez artu ebezan, elizaren baten ostutako jantzi ta bestelako gauzaz beterik ba'líoazen lez. Salamanka'n barriz, arimen eguneko gauan, gorriak ikusi zituen moja bik etxe zaar aundi batean bakarrik.

Etxe eraikitzerik geienetan naigabe, eragozpen eta oker asko azpiratu bear izan ebazan gotzaín, Udaletxe ta prailleen aldekoak batez be. Santa Teresa lakoxe emakume adoretuak aurrera eroan eikezan bakar-bakarrik orrelako egintza ikaragarriak. Amabost komentu barri amabost urtean: ezta gitxi, arraiapola! Errez esaten, gaitz egiten. Teresa'k, alan be, esan eta egin. Orduan erein aziak frutua ekarri dau geroztik: gaur munduan zortzireunetik gora dira Teresa'k Avila'n jasoaren antzeko karmeldar komentuak.

Barruan borbor ebilkion asmoa mamindu nairik. or lenengo ibillaldiak. Avila'tik Arevalo bidean doaz iru zalpardi, baztarretan autsa arroturik. Zur-zut jausten

eguzkia; ori dana, garitza izanak eta bide ertzak. Astiro dabiltz mandoak; alboetan morroiak oiñez eta barritsu; eta apaiz bat zaldiz. Barruan, estalki ta oialpean, moja batzuk jantzi ta tresna artean ez ain egoki, salmuak esanaz eta noizik bein koplá samurrak abestuz. Barrukoak Teresa ama ta zazpi moja dira, Medina de Campo'ra doazanak; zaldiz doana, Aita Julian, euren kapillaua. 1567'gneko agustuaren 12 da.

Ez uste emen be gauzea er.rez arildu zanik; ez, naiko burukomin eta une larri ikusi ebezan komentu barrira orduko. Arevalo, Olmedo ta abar atzera itxirik, badoaz erromesak aurrerantza; nekaturik, egia. Eta bildurrez. Aita Julian'ek asko lagundu dautso Teresa'ri gauzak alik eta ondoen joan daitezán, baiña sortuko dira eragozpenak, nekeak, atsekabeak ugari. Iñok igarri ez dapioen gau-erdirantza eldu dira Medina'ra; emen karmeldar komentura do3Z lenengo, Aita Antonio Heredia nausi dan komentura; bikaiña izan yake onen laguntasuna. Urrengo egunean, au da, 15'an, Andra Mariaren Zeruetara Jasokundean, argia urratzean, esan bear zan lenengo mezea. Guztiak, moia ta praille, alegiñak egin zituen toki egokian eta aundikiro esateko.

Orduko gauzak etziran aaurkoen gisakoak; saur, fundaziño barri bat egíterakoan, lenengo etxe dotore bat. naiz-ta txiroa. bear izaten doau; aero etxe orretan bíziko diran moiak. Teresa'k, deabruak baítik bat gauzak nasDÍl-azo oi eutsozala-ta, arin atondu nai izaten ebazan bere gorabera; etxe edo aterpe bat euki ezker, gaiñerakoa pitinka pitinka eratu ta apainduko eban. Emen dagoz, Medina'n komentu izango dan etxeko atari barruan; ez da gauza aundirik, loi dago, ta eguna urratzean meza emon bear bada, lan egin bear gauzea po-

lito samar ipinteko. Zapi ta oialak ekarri, bazterrak txukundu, kanpaitxo jarri ta abar egiñaz, goiza eldu zaneke altarea dotore egoan mezea emoteko gertu. Aita Antonio'k emon eban mezea, beste guztiak eraspen aundiz lagunduta. Onegaz naiko zan toki arez jabetzeko.

Pozarren egoan Teresa egiñaz, baiña ba-eukien oindiño zeregiñik. Lenengotan asko sufridu eban, batez be San Jose'tik eta Enkarnaziño'tik eroandako mojak ain urri ta aldrebes ikusiaz; borondate onak, baiña, utsune guztiak estaltzen. Kristo gaiñera arduratsua da bere emazteakaz eta ez ditu edozelan lagako. Andik eta emendik ainbat mojagei agertu yakezan, ainbatek laguntzen ebezan eta iñoiz be ez zituen euren buruak bearrian eta premiña gorrian ikusi. Ezerezak asiera emon arren, komentu onek ez dautso, gizaldiak zear, ospe ta aintza gitxi ekarri Jaunari. «Mojak —diño Teresa'k— entzute aundiko egiñik joiazan errian. eraspen aundta artu eutsen; eta, nik uste dot, errazoiz. Oneik ez euken, ba, beste asmorik bakotxak gure Jaunari zelan mirabe egin baiño. Guztian eroien Avila'ko San Jose komen-tuan lakoxe bizimodua, lege ta araudi bardiñak eukiezan eta. Karmeldar izateko be batzui Jaunak dei egi-tsen, eta ainbat eta ain ugari etorkiezsñ Beragandik, ni arriturik nengoan. Bedi Bera bedeinkatua».

Ospe ta entzute ori zala-ta, eliz-gizon eta erritar, edozein maillakoak, asko ta eurrez joakezan kontseju ta otoitz billa, barne-kezkak azaltzera, poz-izpi eske. Medina'n bertan da, eta olakoen artean, norbaitek deituta itxura danez, praille gaztetxo bat etorri yako Teresa'ri, Aita Juan, Salamanka'tik etorria, bere azken ikasketak egiten an aurkitzen dana. Oraintsu abestua dau meza barria. Teresa'k bertatik, prailleen artean be egin nai

leukezan erabarritze lanen asmoa agertzen dautso; bai, gizezkoen artean be, zeregin bardiña osotu bearra dago. Mintzatua da aurretik Medina'ko nausiaz, ots, Aita Antonio Herediaz, eta au pozík dago, bai orixe!, barriztatze arlo orretan lan egiteko. Aita Antonio, baiña, zaarra da ta Teresa'k gazte adorea opa dau ortarako, gorputz-atxaki ta bizi nasaira egiña ez dana,

Juan, ikasketak amaitu barrí dituna, barriz, gaztea da ta ezin ohea iruditzen yako bere gauzetarako. Orrezaz gaiñera, bizimodu latzago baten billa dabil: Segovia'ko Paular kartuxuen komentuan sartu naiez dago. Itxaroteko pizkaten diñotso Teresa'k, ortarako toki eroso bat idoro arte, ez geíago; bizimodu latzago ori, berak gogotan iraulka darabillena, karmeldar Ordena barriztatuan izan ezkerro, Jaunarentzat dudarik bage aintzagarriagoa izango zala-ta. Goi-arnasaren kutsua dabe, ta eragin bizia, Teresa'ren itz sarkorrak. Irribarre gozoa loratzen yako Aita Juan'i ezpan ertzean, baita kondiziño bat ipiñi be: ez daitela asko luza. Eta Teresa'k idazten dau: «Nik praille bi ba-naukazala asteko ikusi nebanean, gauzea egiña begitandu yatan». Albista au lortu ebaneko, bere bular barruan ezin gordeta, gizezkoen artean be karmeldar Ordenea barriztatzen asteko praille bi ba-eukazala nunbait, jolastokian aurkitzen ziran bére alabakana zuzendurik, onan esan eutsen: «Gora Jainkoa! Praille bat eta erdi ba-daukadaz, alabak, prailleen artean be geure erabarritzea asteko».


Osotu ditu Aita Juan'ek bere ikastaroak. Teresa, bi-tartean, ezta geldi egon; Toledo'n, Malagon'en, Avila'n... egon da. Malagon'en komentu barri bati oiñarriak ipiñi be bai, Toledo'ko andra aundiki baten lagun-tasunaz. Baita, arat-onat dabillega, an Avila ta Salaman-



ka tartean, Duruelo, auzune bakarra, arte ta txapar artean galdua, ixil-bizitzarako aukera-aukerakoa, ikuskatu be; ementxe eskintzen dautsoe etxetxo bat praillentzat komentu barria jaso dagien. Bagillaren azken elderantza Medina'n aurkitzen da Juan Teresa amagaz, eta onek ari laster karmeldar lekaidetxe izango dan Duruelo'ko egin-ásmoaren adierazpena emoten dautso: atari zabal samarra, gela biko aretoa, sukalde bat eta ganbara. Biak alkarri begira barre dagie lore bik legez. Gazteak amari azkenik: «Zabal datorkit oindiño».

Andik laster, Teresa bere alabakaz, burdinsarez barrutik eta Aita Juan kanpotik; karmeldar soiñekoz dotore au, lenengo karmeldar ortozen iduri apal bikaiña, begi-alai ta oiñutsik. Amak eta alabak josi dautsoe abitua, latz samarra. Lilluraturik dago Teresa. Or bere bigarren amesa egi biurtua: gizonetakoak be or daukie eurentzat karmeldar Ordena barriztatua. Jusn Gurutzekoak aurrera eroango dau Teresa amak eta berak asiriko lana, urteak joan urteak etorri, itzez eta idatziz, Kristoren Eleizearen alde ainbesteko frutua ekarriko ebana noski.

Ona, Teresa ama il aurretik be, karmeldar ortozak, Ordena barriztatu legean jasotako komentuak: Duruelo (1568), geroago an ondoko erritxo Manzera'ra aldatua; Pastrana (1569), Alkala de Henares (1568), Altomira (1571), La Roda (1572), Granada (1573), La Peñuela (1573), Sevilla (1574), Almodovar del Campo (1575), El Calvario (1576), Baeza (1579), Valladolid (1581), Salamanka (1581) eta Lisboa (1582).



Salamanka'ko karmeldar lekaiméixea.



## XI

### BIDEZ BIDE KOMENTUGINTZAN

Eta Teresa ama ez daukagu geldi; ara ta ona bere zeregiñetan diardu. Valladolid, Salamanka, Alba, Segovia, Toledo eta Pastrana'n jaso ditu komentuak, atsedeen barik: nainun eskintzen dautsez tokiak, dirua, laguntasuna etxe barriak antolatzeko, eta erririk erri dabil iñoizkorik gartsu ta axolati. Bidez bide bazterretako autsak astintzen? Ez, ori baiño geiago: Kristorentzat otoitz eta penitentzi-lekuak egokitzen daragoio, barruan dauan suari iges-bidea emonik.

Gaztela'n asko dauz olakoak jasorik, eta Andaluzi aldetik dei egiten dautsoe; eta ara zuzentzen da Teresa. Nora, baiña? Beas, erritxo liraiña, Jaen'go probintzi barruan, laranja, limoi ta granada-ondo ederturiko mendimagaletzuna. Teresa ona danean, jaietan dago erria; bada bertan kitarra, dunbal, arratz, triska otsik

ugari. Zaldi-gaiñ dabiltz gazteak, neska ta mutil, txeraketan, krabelin eta askotariko apaingailuz ñabar ber-txinduak.

Erri ontakoak jakitun egozan eurretiaz karmeldar mojak an komentu barria ipinteko ziranaz. Eta bidegurutzean burdi-sailla ikustean, mando ta oifiezko morroiz inguratuta, oiua ta deadar bizitan asi yakezan pozez beterik: aleluiak abesten neskatxak eta zaldi-gaiñ arei laguntzen mutillak. Umetxoak, barriz, zarata utsa zer zan jakin naiean. Irribarre dagitse toldopetik Teresa'k eta lagunak, arrera ain begikoari zelanbait erantzun bearrez. Iru bat illabete emon zituan Teresa'k jente biotz-zabal arein artean, ango komentu barriko zeetasun guztiak burutu arteiño. Pozik egoan bertan, baiña alan eta guzti be Andaluzi aldeko lurretan komentu geiago jasoteko asmorik ez eukan, ordukoz beintzat. Aita Jeronimo Grazian'ek, orraitino —ortxe alkar ikusi eben lenengoz—, burutan erabiltzan erabagiak aldatu-azo ta Sevilla'rako biderantza eragin eutson.

Eta Teresa'k muker baifia, arako bidea artu eban. Eguzki galdatan egin bear arako osterea. Ez joian bakarrik, ondo lagunduta baiño. «Bikain niñoian neure lagun onaksz, Aita Julian Avilakoa, Antonio Gaitan, beste praille orpogorri bat —Aita Gregorio Nazianzeno— ta sei moja, ondo zomorrotutako zalpurdian; orrela bait genbiltzan beti», Kordoba inguruan atan be, gorriak ikusi ebezan. Arin ibillita be, Irutasun Deunaren bezperan —1575-V-26'an— eldu ziran Sevilla'ra Beste etxe guztien gaiñez eta zerupe urdiñean txairo Giralda kanpantorre garbala ikusi ebanean, benetan poztu zan Teresa. Lau egun eroiezan eroan be bide zarrak astindu ta astindu, ta etzan arritzekoa.

Urte bete oso-osorik emon eban Teresa'k Sevilla'n. Aita Mariano'k aurkituta, ba-eban aurretik etxetxo bat bere mojentzak, baiña etzan au bere gogokoa. Ezin esan besteko eragozpenak, buru-austek izan zituan, jo ara ta jo ona, bear ebazan baimenak, laguntzak eta etxe bat idoro ta berau txukun jarri artean. Asarre lez idazten dau Teresa'k: «Ez leuke iñok siñistuko Sevilla lako uri aberatsean, aurretik egon zan lekuetan baiño aukera gitxiago zelan aurkitu leikean». Ez egoan an garrik. Bere neba Lorenzo'k ogetamalau urte Peru'n eta E. . . . . 'en eginda, ara eldu yakonak lagundu eutson geien-geien, diruz eta arnasaz. Orrelaxe, etxetxo polit bat lortu eban azkenerako, zuria ta txukuna, andaluziar barne-larrain eta guzti, limoi-sagar, laranja ta albendol, gilgil urritz ta abarrez betea, argiz ta kolorez be jori.

Egiña zan Teresa'k gura ebana. Komentu barria zabaltzerakoan, ospe aunditan agiri ziran bazterrak. Egia esan, urte bete ta zortzi egun igaro ziran baimenak eskuratu, etxea apaindu ta karmeldar bizitza bertan eroaten asi arte; baiña asiera egunean ibildeun luze ta zaratsuz egin zan Gure Jauna aldatzea, txapligu ta lerkai artean, elizgizon, praille ta kofradi artean; kaleetan bazan jentea urduri leio-zale ta ikus-min. Jakituriz ta onoi-menez aberats zan emakume on bat geratu zan bertan nagusi, Jose Deunaren Maria lekaimea, Teresa'k maite-maite ebana. Pozik dago Teresa, pozik bere alabak; agintariak lagun ditu, erria begiko. Angoa ederto daksan ezkeru, gertu dago barriz be Gaztela'ra itzultzeko.

Eta gorantza eginik, bere zalpurdi estuan beti, Toledo'n lotzen da zati batean. 1576'garren urtea da. Ementxe asten da bere «Egoitzak» liburua idazten.

«Gela estu baketsu baten —idazten dau Aita Krisogono'k— Tajo ibairuntz begira dago Teresa; ez dau ikus-taldirik ez antzeko burukominik; bere alaben maitasun-berotan, otoitzarí, idatziari ta jostorraz-lanari emona, gaztetuaz doala dirudi. Gabaz idazten dau batez be. Monjatxo batek, ate-zirrikutik begira, gelako mai aurrean dakus esku artean papera ta idazkortza, bizkor be bizkor «Egoitzak» idazten. Noizik bein aurrean daukan kruseluaren argiak zurbiltzen dautson ditzira baten naasia esitua agiri da. Beste batzuetan usotxu zuri bat jarten yako ezkerreko sorbaldan, goi-argitzen dauan Espiritu Santuaren imdi bikaiña lez. Eta zelako gauzak idazten dabezan paper ori gaiñean! Diamantezko gazteluaren irudia, erdian dizdiz dagioen eguzkiak argituriko egoitza edo bizilekuakaz; or sutaldetxoaren irudia be, areto guztia lurrinkai gozotan jarten dauana; edo-ta iturritxoarena, ur gardena gaiñezkatzen daben askakaz; naiz zetazko artxoaren antzikurra, mitxeleta zuri biur-tuko dan kapulua eioten... Emakume idazlearen ezpiritua ta irudimena ditugu, argiz ta suz kuin-kuin dagozanak; or doaz biak dizditsu lumaren kulatzetan zear».

Bitartean illunaren eta argiaren burrukea, ekaitz gogorra sortu da karmeldar Ordena barrizatuaren aurka, bai Gaztela'n eta bai Andaluzia'n. Batzuk eta bes-tetzuk bizi dabiltz lanean komentu barriak eratsi nairik; Teresa'ren seme-alabalc aurrean darabillez, salakuntzak, biraoak, irriak, iraiñak; ao-gozagarri yakoz bere adiskide ta laguntzailleak be. Zaparrada iguingarri orren aurrean, Avila'ra, San Jose komentura baztertu da Teresa. Antxetik idazten dautso Felipe H'garrenari be. Aita Nagusiari ta zerbait diran guztiai. Ba-dau uste

onik Jaunagan, baiña alegiñak erre bear dauz bere lana porrokatu ez dedin. Eta orrelaxe, otoiitzez eta ekiñez, azkenean be garaille urteten da arriskutik.

Orrenbestez aurrea doaz bere lekaimetxe barriak. Amaitua dau Villanueva de la Jara'koa, eta bertatik dei egiten dautso Palenzia'tik be, len ainbat Avila'n lagundu eutson Albaro Mendoza gotzaiñak. Eske daukoz Burgos'tik be, baiña nagi samar, mando zuriak jota lez daukagu Teresa, eztabaita ta dudaz josia; goiz baten, alan be, Gure Jauna artu ondoren, nagitasun ori etzala bere erruz Jaunari adierazten inarduala, Jaunak agiraka lez esan eutson: «Zeren bildur zara? Uts egin ete dautzut inoiz? Orain arte izan naiatzuna, naiatzu orain be; ez egizuz komentu biok egin barik itxi». Onek eraginda, itxura zanez, laster egokitu eban Palenzia'ko komentu barria. 1578'garrena.

Ondoren Soria'ra. An be komentu barria zabaltzeko erea dauka. Osmak'ko gotzaiñak idatzi dautso. Kape-Uau, morroi, mandazain ta praille, naikoa dira bidazti doazanak. Udabarria bait da, ez dabe beste lekuetan lako bero kiskalgarririk. Ikuspegi alaiak or-emen, garitza zabalak, latziñak eta lur erabilliak eta lautadak ez gitxi; artalde zuriak be bai pitean, solo-muiño, larra ta beraza ertzetan. Teresa'ren entzutea nainon dabil nabari, baita lugiñen artean be, eta soio-lanetan ari diran baserritarrak bidera yatorkoz mesede billa: lurra izugarri legor dago, euria opa dabe euren erein-sailletarako. Eta Teresa'k, bidez doala, euria eskatzen Jainkoari alor zumel areintzat, beste orduz Elias'ek Karmel mendian legez.

Soria'n dagoz; arratsaldeko bostak doi-doi. «Goztzaín jauna begira egoan —diñosku Teresa'k— bere





## XII

### EUSKALDUNAK ETA TERESA DEUNA

Teresa ama etzan Euskalerrira etorri. Soria'tik eta Burgos'tik ebillela, alan be, izan zituan euskal lurraz zelanbaiteko ar-emonak izateko ereak. II aurretxoan eskiñia egin eutson Ordufia'n bertoko Juan Salazar eta Ívkri Lope Arbieto'ren alabak, 1555-2-26'an bateatuak: gazte au gero karmeldar lekaime izan yakun Valladolid'eko komentuan, 1581-3-5'an Santa Teresa'ren eskue-tan profesa egin ebana. Gurari au ez eban bete al izan, «zar eta gaixorik» aurkitzen zalako. Iruña ta Gazteiz' era be etzan eldu, naiz-ta il zan egunetarako beintzat Iruña'ko komenturako bear ziran baimenak eta gaiñe-rakoak erdi-lortuak euki.

Dana dala, Teresa'k bere bizitzan artu-emon barru-barrukoa izan eban euskaldun askogaz, bai autortegian eta bai komentu barriak eregiterakoan. Bizkaitarrak eta

giputzak izan ebazan batzuk, eta napartar-arabarrak beste batzuk, garai atan danai be, erabat, bizkaitar eritxen baiña.

Aitaturiko orduñar gazte, mojatzen Jesus'en Madalena deituaz gaiñera, ba-ziran beste lekaime bi be, bata Salamanka'ko komentuan, San Jose'ren Juana, «bizkaitar» jatorriz, eta Palenzia'koan beste bat, Jesus'en Katalin, «bizkaitar» au be jatorriz, Palenzia'ko eta Burgos'ko fundaziñoetan Teresa amagaz ibilli zana, eta azkenez Burgos' en ama nagusi izana, Bizkaikoa zan Mari Arteaga, Monterrei'ko Kondeen umezaiña, sukar-ustelez gaixorik egoan baten Teresa'k arpegian ikutuaz bakkarik osatu ebana. Baita aitagarri da Salamanka'n bizi zalarik bere lurraldera etorri zan baten, Mañari'n eta Durango'n batez be, Santa Teresa'ren erlikiak zirala-ta ainbat mirari egin zituan Martin Gaztiategi, anai josulaguna.

Ospe aundia jadetsi eben onako mirariak, eta Bizkaia ezagutzen eta maitatzen asi yakun Teresa moja mirarigillea. Onek bultzatuta ziur asko, Bizkaiko Legetxeak, 1611'garren urtean, eskari gartsua bialdu eutsen Aita Santuari Teresa «Deun» iragarri egiala arren bai arren eskatuaz. Andik urte batzuetara, 1676-2-20' an, Gerníka'ko Batzarrak bere aldetik 500 dukat Alba de Tormes'ko Ama nagusiari bialtzeko erabagia artu euskun lanparargi batek Teresa deunaren gorpuzki aurrean argi egin egian, «bitarteko ona izan eiten Bizkaia'ren alderako».

Euskal jatorrizko gizon jakintsu askori edegi eutsezan, uste osotan, bere kontzientzi-ateak. Antonio Araoz aita izan zan onetariko bat, Teresa'k berak aitatzen daus-

kunez. Bergara'ko Araoz torre-etxean jaio zan au, 1516'an; Jesus'en Lagundiaren asikeran Erroma'n alkartu zan Iñakí Deunagaz, eta 1555'garren urtean, Konpañiko Probintzial lez Espaiña'ra igorria izan zanean, berau izan zan Jesuita lez Euskalerrian lenen oiñak ipiñi ebazana. Garai atan Teresa «Enkarnaziño» komentuan aurkitzen zan, eta duda aundi ta kezkaz beterik; barne-bakearen gozotasuna nairik, aita jakintsu orreri azaldu eutson barru-oxiñean ekarren pena.

Aita Domingo Bañez, domingotarras, osteras, sei urtetan autortu zan Teresa. Aita au, Valladolid'en —1528-11-29'an— jaioa izanagaitik, Juan Bañez Artazubiaga ta Frantziska Lopez'engandik, euskalduntzat jo o' eban beti bere burua. Eder yakon «mondragonensis» esatea. Bere aitalena, Otxoa Bañez Artazubiaga, Arrasate itxi ta Mena ibarrean tínkotu zan, andík gero toki askotara barraiatu yakun aren leñua. Izate barruan josirik daroafiuna ezta errez kentzekoa, ezta atta onek be, ta bere liburuetatik baten, ots. «De Fide» deritxonean, idazkera labur estuan osotua dagola diño, berari jatorriz egokionean; euskal ioskera labur tinka dala adierazo nai izan euskun. Aita euskotar onek Teres? amari, arimako gauzetan er-ezik, Otd.enako esrin-kizunetan be ez eutson sitxi lasundu: eorago aitatu do-  
↳an Barriztatzte aldíko ekaítz izusarri aretan, dalako Batzarrean. Teresa'ren ^lde bulartsuen jokatu ebana, gazte zala jokatu be, Aitg Dominsio izan zan.

Madrid'en, erregearen kortean be ba-ziran orduan euskaldunak, bi beintzat ango auzi ta arazoetan burubelarri sartuak. Ona biok, naiko ezagunak: Juan Idíakez eskribaua, donostiarra, ta Esteban Garibai kronikalaria, Arrasate'ko semea. Felipe II'garrenak, Idia-

kez'ek diñoanez, maite-maite eban Teresa ta asko lagundu eutson karmeldar Ordenea barriztatz lanetan. Garibai, barriz —berak difio—, birritan aurkitu zan Toledo'n Teresa amagaz. «Asko poztu nintzan beragaz —idazten dau—, baita Teresa bera be nik uste dot asko poztu zala, ni bera ikusten joan nintzalako». Garibai Arrasate'n jaio zan 1533-3-9'an.

Caravaca'ko lekaimetxearen jaso-egunetako zeaztasunak emokeran, Katalina Otalora bat aitatz dau Teresa'k, mandatari bat bialdu bait eutson onek erri aretan komentu bat jasoten ara joan zedilla eskatuaz. Teresa'k berak ezin izan eban orduan araiño eldu ta Avila'ko Julian eta Antonio Gaitan bialdu eutsozan eginizun a burutu egien. Arazo orretan, zein diruz eta zein adorez, asko lagundu eutsen euren egitekoa aurrera eroaten, eta Teresa'k, beti esker oneko, angoai geroago onan idazten eutsen: «Adeitsu ta esker oneko izan beti be Katalina Otalora andrearekin, edozetan berari poza emonaz, asko zor dautsaguna da, ba, ta onakoakaz ez dirudi ondo esker txarra». Emakume ongille au, us-te danez, Sevilla'n munduratu zan; bere aita Santxo Lopez Otalora, Aozaraza (Aretxabaleta) auzokoa genduan, Sevilla'n arazo politikuak eukazana.

Leniz ibarrekoa zan, baita, Simon Galartza jauna, Alba'n komentu barriztuta eregiten laguntzaille izana ta gaur be an Teresa'renaren ondoan idazkun onegaz bere illobia daukana: «Uztai ta obi au Simon Galartza'renak dira, eta beronen oiñordekoenak, eliz-monastegi ontako leen-patroia, eta Frantzizko Belazkez eta onen beronen emazte Teresa Lariz'ek, bertoko irasleak, oroigarritzat itxiak». Ba-dira oraindiño beste gipuzkoar bi be, aipagarriak; bata Aita Pedro Agirre, Motriko'ko

semea, Teresa amari, Sevilla'n lekaimetxe barria eratu nairik ebillela, eragozpenak jarten bizi-bizi jokatu ebe-  
nen arteko, prantziskotarren nagusia bera; eta bestea,  
donostiarra, Otadui ta Abendaño'tar Lorentzo, urteak  
joan urteak etorri, Avila'ko Gotzain zala (1598) Tere-  
sa ama «Doatsu» iragarteko esan ezin beste lan buru-  
tu ebana.

Karmeldar Ordenearen barriztatzailleari, bere bizi-  
tzako azken-egunetan pozaldirik eundienak emon eutso-  
zana be euskaldun emakume zintzo ta jaínkozale bat  
izan zan: Tolosa'ko Katalina. Orduan alargun, bere se-  
me bi ta sei alabagaz, Burgos'en bizi zan arren, gipuz-  
koarra eban bere senarra, Muntzaraz'tar Sebastian,  
merkatari aberatsa. Teresa'k, Burgos'ko fundaziñora  
pozik joan zanagaitik, izan zítuan buru-austeak, isti-  
lluak eta auziak, ez gitxi, gero, danak eukazan zirudie-  
nez aurka. Emakume argi ta txeratsu onek, orraitíño,  
aspertu barik lagundu eutson; bere etxean euki ebazan  
lenengo, gero komentu barrian biziko ziran mojatxoak,  
jan eta lo. Teresa'k, eskertsu, onan bere *Lekaimetxeak*  
liburuan: «Alargun santua, bizkaitar au; bai peniten-  
tziz bai otoitzez andia zan; aren onoimenak esanaz asko  
luzatu naiteke, limosnaz eta goi-maitasunez eder, adi-  
menez eta adorez jator». Katalina'ren seme biak gero  
praille egin ziran, eta sei alabak Beatriz ezik moja; be-  
ra be, azkenez, 48 urteko, Palenzia'ko komentuan sar-  
tu zan zan, bertoko ama nagusi be izanik, 1601'an.

Burgos'en aurkitzen zala Gazteiz'erañño eltzeko go-  
goa erakutsi ei eban Teresa'k. Arabarra zan Garbikun-  
dearen Aita Pedro, Arganzon errikoa, Pastrana'n Aita  
Grazian'en profesakide izan zana; 1582'an, biok aur-  
kitzen ziran Burgos'en Teresa amari laguntzen, eta asi

ta laster Aita Grazian andik aldendu zanean, Aita Pedro geratu zan sei bat illabetean beintzat Teresa autortu ta beste arazoetan laguntza izan egian. Baleiteke, gaiñera, arabarra ízatea Prudenzió Armentia, Palenzia'ko kanonigua, ango komentua eraturten Teresa'ri ainbat lagundu eutsona.

Napartarra zan Gizakundearen Ana lekaimea. Sevilla'n, Ubeda'n eta Granada'n ama nagusi izan zana. Iruña'n jaio zan 1550'an; bere gurasoak, Juan Arbizo ta Maria Arbizo, Naxera'ko Dukien senitarteko; Segovia'n egín eban profesa 1574'an. Naparra zan, baita, gorago aitatu dogun Beatriz Beamonte be. Iruña'n jaioa 1523'an; Soria'ko gizon aberats batekin ezkondu zan, baiña alargun eta seme-alaba barik geratu zanean, bere ondasunak komentu bat eregiten eta bere loben artean banandu nai izan zituan. Onen loba bik, Aianz'tarrak, Soria'n jantzi eben karmeldar abitua, Teresa'k jasotako komentuan.

Beatriz Beamonte'k gerotxoago alegiñak egin zituan Iruña'n be karmeldar mojen etxea eregiteko. Lenegotan izan ebazan burukomifiák jagi ziran zoztorrak zelaitzen, baiña Beatriz-ek bere jauregia eskiñi eban komentutzat 1583'an, abenduaren 8'an, zabaldu zan lekaimetxe barria, egun berberean Beatriz'ek berak be kármeldar jantzia artuaz. Antxe zan Aita Grazian be, eta onek diñoanez, asko lagundu eutson fundaziño orretan Katalina Xabier'ek, Xabier'ko San Prantzisko'ren lobeak, Franses Aianz'egaz ezkondata egoanak. Labur: Santa Teresa'k, laguntzaille leialak izan zituala euskaldunen artean.



Alba de Tormes. Ementxe il zan Teresa, 1582'an.





### XIII

#### TORMES IBAI ONDOAN

Burukomin barik ez baiña, atonduta geratzen ziran jadanik Burgos'ko auzi ta gaiñerakoak. Tolosa'r Katalina'ri eskerrak batez be, orra jasorik karmeldar lekaime-txe eder bat geiago. 1582-4-19'an zabaldu zan Teresa'k eraikitako komentuetatik atzena. Barrizketan asi zanetik oneixek daukaz jasota: Avila (1562), Medina del Campo (1567), Malagon (1568), Valladolid (1568), Toledo (1569), Pastrana (1569), Salamanka (1570), Alba de Tormes (1571), Segovia (1574), Beas (1575), Sevilla (1575), Caravaca (1576), Villanueva de la Jara (1580), Palenzia (1580), Soria (1581), eta Burgos (1582). Granada'koa (1582), Gurutzeko Juan eta Aizta Ana'ren bi-tartez egin eban. Eta, ezta arritzekoa, ogei urtean ain-beste lan egiñik, «zaartua ta gaixorik» dago Teresa eta, Burgos'ko otzak itxiaz, bere komentu kutunera, Avila' kora, joan nai dau atsedeen billa.

Eta egin-egiñean be, asmo orrek bultzatua, arako bidea artzen dau. Bere loba Teresatxu, Lorentzo Zepeda'ren alaba, Avila'n profesa egin bear dauana, ta betiko laguntzaille txeratsu eban Ana aiztea eroiazan beragaz. Sarritan jasotakoa dogu, alan be, euskal esakun au: «Gizonak ekin, Jaunak egin». Orduan be bai. Teresa tx.it esanekoa yakun. Medina'ra eldu ziraneko, an egoan Aita Antonio, Probintzialaren ordezkaria, bidea okertuz Alba'rantz egiteko agindu eutsona. Eta Teresa, naiz-ta bere gurarién aurkakoa izan agindu ori, arako bidean jarri zan iraillaren 19'an

Urrengo egunean, oso gaixorik eldu zan Alba'ra, auleriak joa. Jan aundirik ezak eta bideko nekeak eratsita aurkitzen yakun; ango mcjak ba-ekien austuta etorrena, ta artegaz eukazan itxaroten. Ez dago zetan esanik be, pozarren artu eben, baita Teresa'k bere alaba areik be. Urrengo egunetan jausi ta jagi ibilli zan San Migel egunera arte; egun onetan, meza entzun eta Gure Jauna srturikoan, ogeratu egin zan gsiago ez jagiteko nunbait.

Eleizara begira dauka gelea, ta andik aukerako yako errezuak egin eta elizkizuna i'Traitzea. Emen ez dago txarto, ba-dau maitasuria, ba-dau txera. Baiña badabilkio barruan zimiko lez gursri bizi bat: Avila'n il hai lenke. Eta bere zaintzaille arduratsuari diñotsa: «Mesedez, zerbait obeto nakusanean, alaba, bi.lla egizu zalpurdí arrunt bat, eta iagirik goazan Avila'ra». Or'xe aren goizeko izarra, aren bizítz azkeneko ames urdiña. Baiña, Jainkoak alan naita, ez yakon egi biurtu.

Urrillíren lenengoko gaba otoitzean murgil igaro eban Teresa'k; eta eguna egin zanean, autortu egiala eskatu eutson Aita Antonio'ri. Alai asmatuko zan, dudarik bage, Aita au, Teresa'k barriztatu eban Ordenako

lenengo praillea nunbait, arima garbi, eder, jainkoza-  
learen utsegiteak entzutean. Albiste bat zabaldu zan  
etxe guztian, zera Kristok iragarri eutsola larter iltekoa  
zala. Moja batzuk esan eutsoen Teresa'ri: Aita Anto-  
nio'ri entzun eutsoela eskatzeko Jaunari oraindiño ez  
egiala eroan; baña berak, Teresa'k noski, erantzun ei  
eban: «Ez, ez eizue nire ardurarik izan, munduak onez-  
kero ez dauka nire bear-izanik».

Andik gitxira moja guztiak alkartu ziran aren oge  
inguruan, eta Teresa'k onela: «Eldu yat azken ordua»,  
Azken Sakramentuak eskatu zituan. Mojak negarka; oi-  
u ta asperenak, Jaunari zuzenduak. Giro guren aretan,  
Amaren il-buruko iduri, dardaraz ebagitako itz-itzok  
durundu; «Jainkoarren, ene alabak, kontu aundia izan  
egizue Ordenako lege ta araudiak ondo beteten; oneik  
bear lez zaindu ezker, ba, ez da beste miraririk bear  
«santu» izateko. Ez eizuez, gaiñera, kontuan artu moja  
geizto onek emonda izan dozuezan ikasbide txarrak,  
Parka eidazuez».

Jauparia Gure Jaunagaz gelaratu zala konturaturik,  
oian jarri zan Teresa iñoren laguntasun barik beean be-  
launiko gurata. Jaunartu eban. Eta argi ta eder jarri ya-  
kon betarte, gazte itxura arturik. Onetan, esku biak  
alkartuz, maitati ta gozo, diño: «Ene Jaun eta Senar  
maite!, eldu yat biziro opa neban unea. Ordua gu biok  
joateko; ordua da, ene Jainko, joateko, eta bedi arik  
ariñen; egin bedi zuk naia». Zaiñak, Ana aizteak, *Mi-  
serere* salmua oiukatzen: «Ez nagizu urrin zure aurre-  
tik/, zure arnasa santua ez niri kendu... Zuri, Jauna  
biotz leiala/atsegin yatzu... Biotz garbi bat, Jainko/,  
sor egizu niregan... Nire oparia, Jainko/, biotz damu-

tua: ez dozu ezestuko, Jainko/, biotz damutu/eta umildua»,

Azkenez Teresa'k, itxaropentsu, diño: «Azkenean be, Jauna, Elizaren alaba nozu». Ez dau geiago berbarik egingo, berbartu samar ezik.

Noizik bein, negarrez dagozan alabakana biurtzen ditu begiak; geienik, baiña, barruan bildurik antz-aldata lez dago otoitzean. Baketsu, kezkarik bage, ezertariko ziñurik, zain-biurrik bage; intziri samur batzuk, esku artean daukon Kristori. Eta guenean, burua bigunbigun Ana bere zaintzaille kutunaren beso gaiñ, Jainkoaren eskuetan izten dau bere arnasa. 1582-10-4 da, gabeko bederatzia jotakoan.

Aita Krisogono'k onan edertzen dauku ondorena: «Beingo baten jainkozko argitasunak somatzen dabez mojak, aingeruen ego-otsak eta neskutsen kanta-soiñuak, Amaren arimeari lagunduz. Lili ta zitori usaifiez gozaten da gela medarra, komentu osoraiño zabalduz. Argi ditzikor bat kokatzen da gelako teillatu gaiñean; izar dardara da aidean, aintzara doan ezpirituari bidea markatzen eutson izarrarena nunbait. Tormes'ko urak, komentuko orma ondo-ondotik doanak, murmur-ots leuna ateraten dau, urrumakari, bere ur-ertzetan abailduta jausi dan Amaren amesa, luzaroen luzaro, iraun-azo nai bai leukean»,

Irurogeta zazpi urte, sei illabete ta zazpi egun eukazan Teresa'k il zanean, urrillaren 4'an, esan dogunez. Orduantxe arteztu zan Egutegia Aita Santu Gregorio XIII'garenaren aginduz, amar egun aurreragotuta. Santa Teresa'ren eriotz biaramona, beraz, urrillaren bosta barik, amabosta zenbatu zan.

Gorpuari lur emoterakoan, kare asko bota eben ilkutxa barruan albait lasterren usteldu zedin, Avila'ra aldatu naiez ebiltzanen asmoak porrot-egin egian, bear bada. Alan eta guzti be, 1584'an, Aita Grazian andik igaro zanean, Amaren ilkutxa ikusi nai izan eban, eta, zabaldurik, eortzi ebela urte bi izan arren, «oso-osorik» aurkitu eben gorpua, usaintsu ta gordin lurra emon yakonean legez. Bariro kutxa itxi baiño leen Aita Grazian'ek ezker-eskua ebagi eutson eta Lisboa'ra eroan, eta ango moja karmeldarrak dira oindiño be erliki orren jabe.

1585'ko Karmeldar Oiñutsen Batzar Nagusiak erabagi ebanez, Avila'ra, San Jose komentura eroan bear zan Teresa amaren gorpua, eta alaxe egin zan azillaren 25'an; Alba'ko Dukeak, baiña, Teresa Deunagaz artu-emon aundia izan ebanak, auzitara jo eban aitaren egin orduko, eta auzia irabazirik, Aita Santu Sixto Vgarrenagandik lortu eban barriro be Albara biurtzea: orrelaxe egin zan 1586'ko agustuaren 23'an. Geroztik antxe daukagu, il zan tokian, Teresa emakume arrigarriaren gorpua, oraindik ustelaren mende jausi bage,

Bizitzan, bere zuurtasun eta jakituri aundiz eta or-emen jasotako lekaimetxe ugariz ospetsua izan zan legez, il ostean be laster barriatu zan Teresa'ren entzutea. Imillaunpean ezin euki argia, ta «doatsu» lenengo ta «deun» gero iragarteko zeregiñetan asi ziran, leen-jarrai-marrietara laster joaz. 1614-4-24'an «doatsu» iragarria izan zan, eta 1622-3-12'an «Santu» egiña: Aita Santu Gregorio XV'garrenak, Ixidor Nekazari, Loiola'ko Iñaki, Xabier'ko Frantzisko ta Neri'tar Felipe'gaz batera, altaretara jaso eban.



## XIV

### SANTA TERESA, IDAZLE

Amaseigarren mende asieran agertzen yaku Teresa munduan. Europa'n etzan giro gozoa sasoi orretan, Naspil, itzulazketa ta gorabera izugarrien garaia zan; giza-diaren aldaketa sustraizkoak gertatzen ziran aurreko urteetako egoeraren ondorio legez: joan mendeetan erro bizitan egozan siñiskera asko lurrera etozan goizetik gabera; guda zakar, erri arteko istillu anker eta eztabaida latzakaz Europa osoa agiri zan darda gaiñean, kezka gorritan, eta berein auzi atondu ta ebatzi bearra somatzen zan. Jainkoak, alan be, ez dau mundua saiets izten, eta giza-seme-alaba bipillak sortazi oi ditu garaiz, aldi bakoetako goraberei zentzunez erantzuteko gai izango diranak; orduan bardintsu, or zituan gizarte arek, kezka gorri aretan ebillenak bear zituan aurrelari kementsuak. Teresa zan oneitariko bat.



Santa Teresa, zuur eta neurridun, oreka onekoa zanik ezin daikegu uka; orrela dakusgu, gorputz eta arima, bere bizitzaldi guztian. Zala zalako ekintzan, aren giza-aalmenak eredu lez agertzen dira edozein jokabide-tan; aren asmoen zintzotasuna, aren izakeraren artea, adimenez guren eta nai-izatez iraunkor, sentipenez zabal eta guren... doai oneikaz eder doa beti Teresa'ren bizia. Ondorioz autortu daukegu Jainkoak amaseigarren mendeari egiñiko mesede bikain-bikaiña izan zala Teresa Deuna.

Eta Teresa'k bere aldetik duinkiro erantzuten dau-tso bere gizaldiari, ez bakarrik Karmeldar Ordenea garai arek eskatzen ebanez barriztu ta bide egokiak zear jarriaz gero, baita ezpirituzko liburu ederrak, bere garai-ko asketika ta mistika literaturan, orduko jentek eskatzen ebanez ondu ta idatziaz be; antzekorik ez daukien liburuak ain zuzen be, mamiñez eta idazkeraz, erlejiño-gaiez, esate gozoz eta jakintzaz jori-bete. Olakoxeak doguz, bai, bere «Bizitza», «Onbidea», «Egoitzak», «Lekaimetxeak», «Eskutitzak» eta abar. Lilluragarri yakuz aren idatziak oro, lau ta errez burutuak; idazle sotil baten biotz-ondo ta jakituriz ondo jantziak, nunbait.

Bigarrenez gauza bera adierazo bear izanda be, zer bigaitik dogu Teresa aundi be aundi: bere neke-izerdiz jaso zituan komentuakaitik eta idatzita itxi euskuzan liburu ederrakaitik. Leon'go Frai Luis'ek, Teresa ilda geroago, au iñoan: «Nik ez neban ezagutu, ez ikusi, Teresa ama, lurrean bizi zalarik; baiña orain, zeruan bizi dalarik, ezagutzen eta ikusten dot beti, berenetik itxi euskuzan irudi bizi bitan, ots, bere alabak eta bere liburuak».

Idatzi ebana garden eta errikoi idatzi eban, aginduta geienik; eta idatzi orreitan daukagu argi ta dizdizka bere izate osoa; bera etzan konturatu bear bada, baiña ortxe dago Teresa zan bezela ta oso-osorik, ez geiago ez gitxiago, Jainko-maitasunez txinpartaka ta jakituriz blei-blei. Ikusiz, oartuz, ikasiz batu ebana guztiz azalzen dausku idatzitako liburuetan. Orrezaz gaiñera, Liburu Santuak eta garai atako idazle batzuen lanak be, esan daigun, aurrean euki ebazan.

Ona emen aren idazlanik aundienak:

a) *Bizitta*.—Berrogeta zazpi urte eukazan Teresa'k au idatzi ebanean. Berrogei kapitulu edo idazpurutan banaturik dago, eta egin ebazan liburuetatik auxe da luzeena. Berez-berezko lautasunaz, eder ta zoragarri, azalzen dauskuz bere arimearen izurdura, inguru-mari ta tolosak, gero ta interesgarriagoa egiñik irakurtaldia. Umetako ta gaztetako jazoerak, barruko kezka ta aiko-maikoak, Jainkoari osoan emoteak ekarri eutsozan ondasun ugariak, osotu ta edertzen dabe idatzi aberats, bete ta jakingarri au.

Gai guztiok ziñeko mintz-orri batean lez doaz irakurlearen begi aurretik, Jainkoak egin doai, mesede ta esku-erakutsizko irudi bizietan barna. Askotxoak goraldu izan dabe liburu au, baiña begoz emen Azorin espaiñar idazle azkarraren itzok: «Libururik sakonena dogu —diño—, beteena, sarkorrena, europar literatura baten be aurkitzen ez dan lakoxea». Gau osoa emon ei eban Edith Stein emakume jakintsuak berau irakurten, azkenez ots-egiñik: «Ementxe dago egia». Eta leen ez zana, katoliku egin zan.

b) *Onbidea*.—Aita Bañez Artazubiagak agindurik idatzitakoa, 1564-1567 bitartean. Berrogeta bi kapitulu daukaz. «Bizitza» liburua, idatzita gero be, ezin ipiñi izan zan zati baten karmeldar moja oiñutsen eskuetan; orixegaítik, liburu a benetan ederra zala jakiñik, bere alabak eskatu eutsoen idatzi egiala beste bat eurak eze-  
ren eragozpen barik irakurri al izateko modukoa. Orrela sortua da, bere alabak eta autor-entzuleak eskaturik, Onbidea deritxogun au. Avila'n, San Jose komentuan bizi zala osotu eban.

Ulert-errezena, nunbait, Teresa'k egiñiko líburu guztien artean; gaur be karmeldar mojak idazti edertzat josten dabena,, euren bizimodua atondu ta Jainko bidetik aurrera egiterakoan, Lau zati ditu: sarrera txiki bat, lenengo; otoitzerako bearrezko oiñarri ta egitekoak, ondoren; otoiiza adierazten dausku gero, zer dan eta zetarako; Gure Aita azaltzen dau azkenez, naikoa luze, bide batez otoiitz-bideko mailla, gorabera ta beste zerik premiñazkoenak gogora dakaz. 1963'an argitaratu zan euskeraz be.

z) *Egoitzak*.—«Barne-Gaztelua» be deitu oi yako. Teresa'k bere eskuz idatzi eban kopia Sevilla'ko karmeldar mojen komentuan dago gaur be. Aita Grazian'ek aginduta ídatzia. 1577'garren urteko Irutasun Deun-deunaren jaiari (bagillaren 2'an) asi zan berau osotzen, eta pare bat illabetearen amaiturik eukan itxura danez. Teresa amarentzat «ederra» zan liburu au, «pitxia» berak diñoskunez. Eredu bat da literatura maillan.

Gaia? Gaztelu baten antza dauko arimeak; zeruan be ainitz egonleku dagozanez, agoitza asko daukazana. Erdi-erdian Gazteluaren jabea dago, Jainkoa; arimearen

ardura guztia da, maitasunari ekin, gaztelu orren lenmailla ta bizitokietatik asi ta gorengoetaraino eltzea: auxe da Teresa'ren elburua, arimak barne-bizitzan maitasun ziur ta berozko bidetik ezertariko oker bage gidatu. Zazpi edo dira gogoak Jainkoagana eltzeko igaro bear dabezan egoitzak; bide eztukuetatik doa arimea, jausi ta jagi lenegotan gero ta garbiago eginik, gizasemeari lortu errez ez yakozan zador mistikuak urratuaz. Jainkoagandik urrago ta arimea Jaunarekiko berotasun leun-goizan murgillago. Sua da Teresa'k liburu onen orrialdeetan itxi euskuna. Euskeraz daukagu biluru au be.

d) *Lekaimctxeak*.—Edesti liburua. Komentuak jasotako bakoaren kondaira papererazten eban; ogeta amaika kapitulu dauz idazti eder onek, ta Burgos'ko komentua jasota gero, il aurretxoan amaiua da. Ez yakon, ziur asko, lan erreza izango amabost komentu jasotea, andik eta emendik sortu oi ziran aurkalaritza ta etsaien makur-asmoak deuseztuaz. Naimen sendoa, begi zorrotza, jokera zolia ta Jainkoagan fede benetakoa bear ortarako, eta bear-bearrezko gaitasun orreik inun baiño obeto agiri yakuz liburu onetan. Atsegin aundiz irakurten dana; bere ibillaldietako gorabera ta jazoeraz gainera, ainbat kontseju ta irakatsi eder damoskuz bertan.

e) *Eskutitzak*.—Amabost bat milla eskutitz idatzi ei ebazan Teresa'k, eta oneitatik 471 dira gaur ezagun doguzanak. Kartaz azaltzen dogu edertoen geure barrua; orreitan agertzen da, bai arrigarien Teresa aundiaren biotza be, arazo askotarako eban trebetasuna, jenteakin erabilli oi eban adeitasun arduratsua. Eskutitz oneitatik geienak bere bizitzaldiko amar azken-urteetan eginak dira, komentu jasoten jo ta ke ibilli zaneak noski.

Ba-ditu oraindiño lan txikiago batzuk: Olerkiak, Ol-  
dozkunak, Komentuak ikertzeko era, Oiuak, Mojentza-  
ko araudia, Oarrak eta abar.

Lanok guztiz goratuaak ízan dira, zein irakatsiari  
begira, zein idazkerari. Ez da pixu gitxikoa M. Menen-  
dez y Pelayo'ren eritxia; onela diño ak: «Ez dago mun-  
duan, ez prosaz ez bertsoz, onen prosaz eta bertsoaz ki-  
detzekorik, ezta urrik emotekorik be, aren Bizitzaren  
edozein kapitulukin».

Gai asko astindu zítuan, esan dogunez. Eta, gai ba-  
kotxean idazkera berezia ez ete darabil? Gori-goria da  
«Bizitza»-koa, «Onbidea»-n irakas-estiloa darakusgu,  
«Egoitzetan» sutsua ta «Lekaimetxeetan» lau erreza.  
Aren irudikizunak irakurriaz geratzen yakuz; ez dau  
egundo astirik galtzen itz polit bílla; ez dau arduratzen  
zelan idatziko dauanak.

Berez-berez doakio, bai, arimea, arima azkarra, idaz-  
kortzetik zear, bizi-bizi, indartsu ta bikain. Zuzenean  
jokatu eban beti, nai esanetan eta nai ingurumariak do-  
toretzen. Aren lumak emondakoa zuzenean emona dogu;  
eta, ain zuzen be, orretzek ezartzen dautse aren ida-  
tziai egi-egiazko sotiltasuna. Eta irakurleoi, dana dala  
arrotzen dauan gaia, orretzek izten dausku alako sua  
ta gozotasuna,



Avila. San Jose komentuko baratza.



## XV

### SANTA TERESA, ELIZ-IRAKASLE

San Pedro'ren Eliz Nagusian zan, 1970-9-27'an. Aita Santu Pablo VI'garrena buru zala ospatu zan liturji alkar-mezatan, Pablo Puente gotzain, Lasterriko Idazkari zanak espaiñeraz irakurri eban Apostolu Letren laburpen au, beronen bitartez Teresa Deunari Eliz osoko Irakasle titulua emonik:

«Avila'ko Teresa, izen aundiko emakume gurena, Karmel Mendiko Andra Mari Doatsuaren Anaidia barriztatu ebana; santu askok eta askok goretsi izan eban onen santutasuna, baita zientzi santu-santuan irakasle ziran askok zuzendari ta maisu lez artu be, bizitz-eredu zalako bere irakatsi bikaiñez eta argi diztikorrez; Elizeak be ez dau ospatu eten barik bere bizitzako egite izugarri ta birtute bereziakaitik soil-soilki, baita bere kristiñau jakituri ta bere idatziekin munduan egin daroan irakas-mesedeagaitik be,



Auxe izan zan errazoirík beiñena Gregorio XV'garrenak santuen ohore ta dedua Teresa'ri emon eutsozanean, bardin Pablo VI'garren Aita Santuak Elizako Irakasle autortzea on eta egokitizat etsi ebanean, Jainko gauzetan dauan jakituriagaitik eta bere idatziekin munduan dagian irakaspenagaitik, lenengo emakumea onetariko tituluz jantzi ebanean, ain zuzen be.

1967'gneko urrillaren 15'an jadanik, Aita Santuak berak adierazo eban danen aurrean Elízako Irakaslarien artean Teresa Deunaren izena ezarteko ikutu beroan, eta bere aurretiko Aita Santuak be aren irakaspen oi-ezlakoari izan eutsoen on-ereste aundian, sarri olantxe adierazoaz eta era berean Elizaren autorpen gurenerako bidea gertatuaz asmo orrekin ibilli ziran.

Orrein artean, aurrenengo lekuan gogorazo bear da Gregorio XV'garrena; Teresa'ren liburuai buruz onek esan bait eban kristiñauak atera leikezala liburuok irakurriaz santutasunezko frutu txit ugari ta naroak, betiko bizitzaren egarri bizia sortu-azoaz gaiñera. Pio IX' gárrenak egokitizat oso ta obarí ez gitxiagotzat joten eban emakume aundi onen Iiburuen irakurte etenbagea. Leon XIII'garrenak baieztu oi ebanez, aren idatziak daukien indarra gizonena baiño Jainkoarena geiago da, Jesus'en Teresa Deunari «maixu aipagarri» eritxon X'garren Pio Santuak; XI'garren Pio'k, barríz kristau, askesis eta santutasunezko «maixu gurena», eta Juan XXIII'garrenak «elizako argi-zuzi distiranta».

Ezta arritzekoa, beraz, Santa Teresa'rekin artu-emo-na euki eben gizasemeak eurak, santutasunez eta irakatsiz ain argiak ziranak noski, emakume arrigarri onen santutasuna ta irakatsi gurena oni ezarritako goralpene-

tan egundo bereiztu ez izatea. Oneik izan ziran santu aundiok: Pedro Alkantara, Frantzisko Borja, Gurutze-ko Juan, Juan Ribera, Avila'ko Juan. Oneik guztiok Jainkoak argitutako maixuen Maixutzat euki izan eben Teresa Deuna. Arrezkero be, on-eritxi bardiña erakutsi izan dautsoe beste santu batzuk, euron artean Elizako Irakasle diran Sales'tar Prantzisko'k eta Alfonso Ligorio'k, eta beste batzuk: Antonio Maria Claret'ek, Karlos Sezze'k, Bizente Pallotti'k.

Errazoi guztiokaitik, Aita Santu Pablo VI'garrenak, Jesusen Teresa'ren santutasuna ta irakatsiak guztientzat onurarik aundienerako izan daitezala sutsu opa izanik, ikas egiala agindu eutson Eliz-oituretarako Alkarte Deunari, alik eta arduratsuen ikasi be, egokia ete zan ala ez, Benedito XIV'garrenaren agindu ta ebatziaz jarraituz, eliztarren onari bai santutasunez eta bai dotriñaz berarizko moduz lagundu izan dautsen emakumeai Eliz-Irakasle titulua emotea. Aita Santu berberak onartu ta legezkotu eban aitaturiko Alkartearen baietzezko erantzuna 1968'ko epaillaren 21'an.

Ondoz-ondoza, Santa Teresa Elizako Irakasle lez ots-egiteko eskatzen eben Karmeldar Ortozen Ordenako Nagusi, Erroma'ko Elizako Kardinal, gongotzain, goztzain, naziño guztietako ainbat lekaide ta lekaimeren gurariai erantzunaz, Eliz-oituretako dan Alkarte Deunari bialdu yakozan erregu guztiok, arreta osoz aztertuak izan zeitezan. Aita Santuak, azkenez, Erroma'ko Eliz Santuko kardinalen erabagia, aldi onetan ortarako izentatutako Santuen Auzi Alkarte Deunaren eritxia nunbait, ots, biotz eta ao batez Santa Teresa'k Elizako Irakasle, maixuen artean lerrotzea merezígari ebala esa-

tean, gauzea zolitasun aundiaz ausnartu ostean, on-etsi ta sendotu eban aitaturiko Alkartearen ebatzia 1969'ko bagillaren 21'an».

Au irakurritakoan, eta otoitzaldi labur baten ondoren, Aita Santu Pablo VI'garrenak Jesus'en Teresa Deuna Eliz osoko Irakasle aldarrikatu eban, itzokaz: «Beraz, ezaguera seguruz eta burubide eldua jadetsi ondoren, Apostoluengandik arturiko aginpide osoaz, Jesus'en Teresa Deuna, Avila'ko Birjiña, Eliz osoko Irakasle iragarten dogu».

Egun gomutagarri ortan, oindiño, Pablo VI'garrenak berak, mezatan egin eban itzaldi sakon bikaiñean, Santa Teresa'k bizi izan zituan graziaren ezkutu miresgarriak gomut-erazo ta gero, gaiñeratu eban: «Ezkutu oneik guri kentatzeko gai izan da Santa Teresa, eta orixegaitik ain zuzen be barne-bizitzazko maixurik bikaiñetarikotzat daukagu. Ez daros alperrik Basilika onetan daukagun Teresa iraslearen irudiak, Santa orren nortasuna zeatz-meatz azaltzen dauan idazkuna: «Otoiz-larien Ama».

Ez bat ez bi gaiñeratzen eban Aita Santuak beste au be; «Lau gizaldi joanak dirala be, zindo darrai Avila'ko Santa Teresa'k bere gogozko egitekoaren oiñatzak markatzen, katolikotasun egarriz eukan biotzaren ederra adierazoz, bere maitasun garbia lur-irrits guztitik askatu ta Elizaren asmoetarako oso-oscrik jarriaz. Azken arnasa emon aurretxoan ondo esan eikean, bere biziaren laburpen legez: «Azkenean be, Elizaren alaba naz».

Teresa Deuna titulu onekin jantzia ikusi naia, aspaldikoa zan dudarik bage; eliz-itzaldietan naiz liburuetan, idurietan naiz margo-lanetan, Irakasle titulua egotzi

oi yakon antxiñatik. Elizak, baíña, ez eban oindiño ezer aldarrikatu, zerbait egiteko gogoá bakar-bakarrík. Pablo VI'garren Aita Santua izan zan «Multiformis Sapientia» Idazkiaren bitartez, titulu ori aundikiro emon eutsona. Edestian, ain zuzen be, emakume bati lenengoz emoten yakon titulua eta deitura. Beraz, 1970-9-27-a ondo idatzita geratuko da Edestiaren, istoriaren orrialdeetan, Jesus'en Teresa Deuna Eliza osoko Irakasle ofizialki iragarria egun orretan izan zalako (ASS, 63, 1971, 185-192, or.).

Leen esana bir-esan dagigun: Idatzi egin eban Santa Teresa'k, eta ídatzia or geldítzen, íkurratz kendu-eziña lez. Ortxe daukagu gaur be aren adimen tinkoa, ortxe aren biotz zabala. Irakur daiguzan aren idazlanak, ez *Bizitza* bakarrik, baita beste guztiak be; auxe da-ta biderik sotillena aren arima zoragarria ezagutu al ízateko. Autor-entzuleen aginduz osotu ebazan geien bat: Jainkoak ixuri eutson jakituri izugarriaz oartzean, itzalezko arrimenean eukazan aren arimea ezagutzen ebenak. Eta, jakiña da, goitik arturíko doai ta galda bero orrein guna ta mamiña liburura aldatzeko agindu eutsoen arren bai arren; olan egin eban bape garrantzirik emon bage. Eta orixegaitik, ziur asko, ezetariko azpi-joko ta malmuzkeri barik idatzita dagozalako, esan ezin-alako inportantzia euki izan dabe, eta daukie gaur be, Teresa Deunaren liburuak.

Irakasle titulua emon dautso Elizeak. Ondo emona egi-egiaz. Ziur esan gengike, ba, gaur-egunean be Santa Teresa dala santurik irakurriena mundu osoan; izkuntza geíenetara ítzuliak dira aren lanak, artuak eta ausnartuak. Santuetan asko ditugu liburuak, eta ederrak, biribildu dabezanak, baiña iñor bere ez Santa Teresa'ren

maillara eldu danik. Orrezaz gaiñera, ainbat dira bere idaztiak irakurriaz Jainkoagana biurtu diranak. Orra, geure egunetan, Edith Stein jakintsua, siñisbako zana Teresa'ren *Bizitza* irakurriz egia aurkitu, karmeldar moja egin eta Hitler'en denporan, Kristo'gaitik eta bere erriagaitik emon eban bere bizia Auschwitz'en, 1942'garren urtean.

Nok eztau opa egia? Orren billa gabiltza. Egiaz ase nai guk adimena, maite-suaz biotza. Barne-bizitzatik jalgiten, iturritik ura lez, jakituria ta goi-argia. Betiko bizia nai, ta bizitz ori egiazko Jainkoa ta Ak bialdu Kristo ezagutu, maitatu ta geuganduz lortzen dogu. Ortarako biderik artezena, otoitza. Kristok sarri: «Egizue otoitz». Apostoluak otoitzari iñarduen Espiritu Santua etortekoan.

Teresa Deuna, otoizlaríen ama. Ixilleko otoitzean lortu eban Teresa'k Jainko-arnasaren galda, goi-argi bizia, otoitzerako oiua. Arimea zelan dagoan otoitzean dakusgu ondoen, Jaunaren grazian, garbi, mardul; otoitzean ikasten da biotza lur-zalekerietatik uxatu ta goindarrez beteten, Jainkoari eder yakon apaltasunaz jzaten. Ortik baít da sortzen Jainko-giro ezta.

Zer ete da otoitza? Entzun Teresa'ri; «Maite gaitula dakigunaz maitasunez jardutea». Gauza erreza, ezta? Auxe da, bai, besterik ez, Teresa'k, otoizlarien ama dala, bere liburuetan irakasten dauskuna. Bedi guztion Irakasle,

## AURKIBIDEA

I	Teresa Deuna gorputz eta arima . . . . .	11
II	Teresa, txikitan . . . . .	19
III	Teresa, gaztetan . . . . .	27
IV	Teresa, bakar-zale . . . . .	35
V	Teresa gaixorik . . . . .	43
VI	Jaínkoarena oso-osorik . . . . .	51
VII	Barriztatzaille . . . . .	59
VIII	San Jose Lekaimetxea . . . . .	67
IX	Lekaime barrien bizi-modua . . . . .	75
X	Komentu barriak moja ta prailleen artean . . . . .	83
XI	Bidez dibe komentugintzan . . . . .	91
XII	Euskaldunak eta Teresa Deuna . . . . .	99
XIII	Tormes ibai ondoan . . . . .	107
XIV	Santa Teresa, idazle .... . . . .	115
XV	Santa Teresa, Eliz-irakasle . . . . .	123

